

GUaiXE.eus



Lasa IV.ak Etxarrin debutatuko du bihar, 22:00etan



Kirolak >> 11

Lizarragan San Adrian festak ospatuko dituzte larunbatetik astelehenera. Olaztiarrak Iturri bedeinkatura joanen dira bihar



Sakanerria >> 8

Hiru galdeketa gehiago 2017an

Gure Esku Dagok iragarri du heldu den urteko udaberrian erabakitze eskubideari buruzko galdeketa egingen direla

Irurtzunen, Lakuntzan eta Altsasun izanen dira galdeketa. Aurretik, azaroaren 27an, Bakaikun >> 3



San Joan suak prestatzen

>> 8-9

Dendari Elkartearen sare bidezko kanpaina

>> 5

Selektibitate azterketa denek gainditu dute

>> 7

1936koa gogoratzeko Arbizon ikuskizuna >> 15



Altsasuko Emakumearen eta Berdintasun Batzordeak emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasun plana parte-hartzearen bidez osatu nahi du.

Parte-hartzetik berdintasuna

>> 7



Otsoportilloko lezetik laborategira, identifikatzera

Aranzadi Zientzia Elkarteako kideek larunbatean jaso zituzten eraildako-en hezurak >> 3

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!


Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com

Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Tel./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



Enara Flores San Miguel
ZORIONAK potxola!!
Urte bat!! Muxu asko amaren eta aitaren partetik.

Enara Flores San Miguel
ZORIONAK sorgintxo!
Muxu handi bat Altsasuko eta Lakuntzako familiaren partetik.



ZORIONAK !!
60 URTE EZKONDUTA!!
Oso egun ederra pasa dezazuela.
Muxu handi bat laurendako.



Bazkideek deskontua

Bakarra:

3,50€

Bikoitza:

7€

Beñat Lz. de Gauna Etxagibel
ZORIONAK Beñat!!!!
Dagoeneko 5 urte!! Ia ia Errealeko jokalaria izateko prest zaude! Muxu handia Onintze, aita eta amaren partetik.

Garagarriak

17-23

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus



Irantzu Gonzalez dantza eskolako kideak, Nazioarteko Dantzaren Egunean aritu zirenekoa.

Musika

Iddwac. Garagarriaren 17an, ostiralean, 19:00etan Uharre Arakilgo plazan.

Alberto Arteta group. Garagarriaren 17an, ostiralean, 19:30ean Altsasuko Haritza tabernan.

Zinemaz da. Garagarriaren 18an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Erkudengo Ama abesbatza.**

Txaston. Garagarriaren 18an, larunbatean, 23:00etan Altsasuko Urtzi tabernan.

The Guilty Brigade eta Storbais. Garagarriaren 18an, larunbatean, 23:00etan Altsasuko gaztetxean.

Ikasturte akaberako kontzertua. Garagarriaren 21ean, asteartean, 18:30ean Lakuntzako kultur etxean. **San Saastin musika eskola.**

Dantza

Irantzu Gonzalez dantza eskolaren jaialdia. Garagarriaren 19an, domekan, 17:00etan eta 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Ikuskizuna

Oroimenez. Garagarriaren 18an, larunbatean, Arbizuko Olatzeako belardian. **Arbizun Oroimenez.**

Mendi irteerak

Errepresioaren kontrako mendi-martxa Bargainera. Garagarriaren 18an, larunbatean, 9:30ean Altsasuko Foru plazatik. **Ospa mugimendua.**

Uharre Arakil - Irurtzun. Garagarriaren 19an, igandean, 8:00etan Uhartetik. **Sakanako Mendizaleak.**

Bizikleta irteerak

I. Altsasuko gau ibilbidea. Garagarriaren 17an, ostiralean, 22:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 40 km. **Barranka txirindulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

Altsasu-Maeztu-Altsasu. Garagarriaren 18an, larunbatean, 8:30ean Altsasuko Baratzeko bide plazako lokomotoratik. 93 km. **Zikloturista taldea.**

Izkiko natur parkea. Garagarriaren 19an, domekan, 7:30ean Barranka txirindulari taldeko Altsasuko bajeatik. 40 km-ko BTT ibilbidea.

Ibilbideak

Txorrokopunta. Garagarriaren 19an, domekan, 8:30ean Altsasuko Foru plazan. **Dantzaleku-Sakana mendi ataleko emakumezkoen taldea.**

Erakusketak

Ingurumena Altsasuko institutuan. Garagarriaren 30era arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean. **Altsasu BHI.**

Bestelakoak

Iñigo Aritza ikastolaren festa. Garagarriaren 18an, larunbatean, 11:00etatik aurrera Altsasun.

Kriseiluaren gaua. Garagarriaren 23an, ostegunetan, 22:00etan Lakuntzan. **Gure Esku Dago.**

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garagarriak 17an, ostiralean, 20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garagarriak 19an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.



EH Bildu

Eneko Konpains. Garagarriaren 17an, ostiralean, 19:00etan Arbizuko plazan. Ondoren auzatea.

Lur Albizu. Garagarriaren 17an, ostiralean, 19:30ean Lakuntzako plazan. Ondoren auzatea.

Dabid Anaut. Garagarriaren 17an, ostiralean, 20:00etan Urdiaingo plazan. Ondoren auzatea.

Juan Kruz Aldasoro. Garagarriaren 17an, ostiralean, 20:30ean Zierdiko udaletxe parean. Ondoren auzatea.

Irti Jimenez. Garagarriaren 18an, larunbatean, 20:00etan Etxarri Aranazko plazan. Ondoren auzatea.

Joseba Konpains. Garagarriaren 18an, larunbatean, 18:30ean Bakaikuko elizaren atzeko plazan. Ondoren auzatea.

Josu Muguruza dokumentala eta Lur Albizu. Garagarriaren 21ean, asteartean, 19:00etan Altsasuko gaztetxean.

Geroa Bai

Daniel Innerarity, Anika Lujan eta Javier Olló. Garagarriaren 17an, ostiralean, 19:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Ostiralero
SAIOA
9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Asteleheneretik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara



Esataria: Eneida

Gaurko gaiak:

- Otsoportilloko lezetik hezurdurak ateratzeaz
- Adur Lasarekin bere debutaz
- Emakumeen mendi taldeaz

107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus-en ON LINE

SAKANA

Otsoportilloko aztarnak laborategian

Senideei DNA laginak hartu zizkieten hezurretatik atera dezaketenarekin alderatzeko

Bigarren larunbatez Aranzadi zientzia elkarteko kideak Otsoportilloko lezera jaitsi ziren. Joan den larunbatean lezea bera aztertu bazuten, azken honetan han zeuden hezurak jaso eta atera egin zituzten. Francisco Etxeberriak lezetik atera berritan senideei jakinarazi zenez, sei pertsonen hezurak jaso zituzten. "Ez dakigugehiago egonen diren. Lepauztai asko opatu ditugu, baina laborategian ikusiko da pertsonaren bat gehiago dagoen edo ez".

Metalezko kutxan zeuden hezur guztiak jaso zituzten; "denak pertsonenak dira, lauzpabost kenduta. Buru-hezurrik ez dago, garondo eta belarri aldeko hezur zati txikiak salbu. Hezurrek ez dute bala

arrastorik". Metalezko kutxatik kanpo ez zuten hezurrik opatu, ezta lezoko bigarren galerian ere. Aranzadiko kideak azaldu zuenez, "hezurak bustita daude, lehortu eta DNA lortzen saiatuko gara". Haiekin batera hotz protesi baten zatia eta oso hondatutako bala baten zatia atera zituzten. Identifikazioak noizko egon daitezkeen galde-tuta, Etxeberriak ez zuen datarik eman nahi izan, laborategiko lanaren eta txostenaren erredakzioaren araberakoa izanen baita.

Bost ordu egin ziren lanean Aranzadikoak makina bat lekuko- en aurrean. Haien artean Nafarroako Gobernuko Josemi Gaston zegoen, Nafarroako Gobernuko Bakea, Elkarbizitza eta Giza Eskubideak zuzendaritzako Historia Memoriako atal burua dena. Aurreko larunbatean zuzendari nagusia ere izan zen, Alvaro Baraibar.



Aranzadi elkarteko zientzialariak lanean.

Kata

1979an Satorrak espeleologi taldeko kideak lezera jaitsi zirenean 10 metro egin zuten beheara eta 14 gorpu opatu zituzten (13 gizon-eko eta emakumezko bat). Larunbatean 7,8 metro jaitsi ziren. Propio botatako kaskailu pila handia dago, 3 metroko altuera duena. Arrastoak ezabatzeko izan zitekeela pentsa liteke, 1979an Jimeno Juriok eraildakoen inguruan hainbat albiste argitaratu ondoren, lezea profanatu egin zutelako. 1982an senideek metalezko kutxa batean sartu zituzten hezurak, tartean zor-

tzi buruhezur).

Aranzadiko kideak harri pila horren azpian dagoena ikertzeko aukera aztertzen ari dira. Arkeologo moduan, kata bat eginen lukete eta zulo horretan lezoko zoruraino joko lukete, hezurrik opatzen ote duten ikusteko.

ETB

Otsoportilloko lezeari buruzko lana grabatu zuten larunbatean. Dani Alvarez kazetaria Aranzadikoekin batera lezera jaitsi zen.

Lekukotzen eskaera

Hezurak hobitrik ateratzen dituzten bakoitzean Aranzadi zientzia elkarteko kideek txostena egiten dute. Horregatik, bideo irudiekin dokumentatu zituzten bi larunbatetako lanak. Gainera, senideei elkarrizketak egin zizkieten. Etxeberriak senideei, eta jendarte guztiari, Otsoportillori buruz duten dokumentazioa emateko eskaera egin zien: "argazkiak, gutunak, olerkiak, orain arteko urteroko omenaldiei buruzko irudiak eta lekukotzak... Guztia txostenean gaineratuko genuke." Eskaeraren arrazoiak azaldu du Aranzadikoak: "Nahiz eta txostena beti osagabea izan, historia horrela izan zela esateko balio du."

Bideoa ikusteko



>> Irurtzun / Lakuntza / Altsasu

Hiru herri gehiagok erabakitze eskubideaz galdeketa izanen dute 2017an



Herri galdeketa egingo direla Iruñian iragarri zuen Gure Eskuk.

Gure Esku Dagok iragarri du Irurtzunen, Lakuntza eta Altsasun heldu den urteko udaberriaren eginen dituztela herri galdeketa

Gure Esku Dago ekimenak larunbatean jakinarazi zuen 2017ko udaberriaren Nafarroako eta Bizkaiko Lea-Artibaiko 22 herri batuko zaizkiola galdeketa bideari. Etxarri Aranatzek 2014ko apirilaren 13an zabalduko bideari Bakaikun azaroaren 27an emanen diote segida eta heldu den urtean beste hiru herri erabakitze eskubidearen dinamikara batuko dira: Irurtzun, Lakuntza eta Altsasu.

Galdeketa sustatzaileek adierazi dutenez, "helmugara iristea baino zailagoa da bidea egitea", horregatik, prozesu osoa kontu

handiz prestatu nahi dute: "prozesu adostua eraiki behar dugu, tokian tokiko aktore denek euren burua bertan eroso ikus dezaten eta herritar orok nahi duen erantzunari bide eman diezaioketen galdera proposatuz." Nafarroa plurala den heinean galdeketa ere hala izanen direla gaineratuzuten Gure Esku Dagoko kideek.

Protokoloa

Gure Esku Dagok galdeketa egin ahalizateko protokoloa zehaztu du. 1.000 biztanle baino gehiago dituzten herrietan biztanleen %10en babes jaso behar da galdeketa egin ahalizateko. 1.000 biztanletik beherako herrietan, berriz, %15arena. Protokolo horretan ere zehaztu

Lakuntzan Erabakitze eskubidearen aldeko kriseiluak piztera

Maiatzaren 27an Irurtzunen egin bezala, Gure Esku Dagok kriseiluen gaua antolatu du Lakuntzan heldu den ostegunerako. *Kriseiluen gaua, ametsakegi bihurtzen* lelopean, erabakitze eskubidearen aldeko taldeko kideek iluntze aurretik kriseiluak salduko dituzte 2,5 eurotan. Gure Esku Dagok 100 lakuntzar baitzelkartuerronka bota du. Gainera, 21:00etan, ezkila-dorre ondoko plazan nork bere jatekoak eramanda elkarrekin afaltzeko deia egin dute. Eta iluntzearekin eta ezkila errepiketa hastearekin batera, 22:00etan, kriseiluak piztu eta aineratu eginendituztelakuntzarrek, San Juan bezperako gauean erabakitze eskubidearen aldeko aldarria argiki zabalduz.

dago elkarte pribatu batek sustatuko duela galdeketa eta toki pribatuaren egin dela. Botoa sekretua izanen da eta galdeketa egunean 16 urte edo gehiago dituzten pertsonen parte hartzeko eskubidea izanen dute. Boto errepikapenak ez direla izanen ziurtatzeko informetika programa erabiliko da. Bestalde, galdeketa berme eta jarraipen batzordeak izanen dituzte, baita atzerriko eta bertako begiraleak ere.

SAKANA

Garapen esperientzia gehiagoren berri izanen dugu

Despeditu berri diren hitzaldien bideoa hilabete barru www.sakanagaratzen.com web orrian ikusgai izanen da

Sakana Garapen Agentziak tokiko garapena kudeatzeko politiketan sakandarrak trebatzeko mintegia despeditu zen atzo. Ibarreko garapenaren arloan aritzen diren eragileei zuzendutako hiru saio izan dira. Haien bidez, tokiko garapenari buruzko informazio orokorra jaso eta beste eskualde batzuetako esperientziak eta lanildoak ezagutzeko aukera izan da. Agentzietatik jakinarazi dutenez, tokiko garapenari buruzko esperientzia orokor horiek ezagutu ondoren, etorkizuneko trebakuntza saioetan esperientzia zehatzagoak programatuko dituzte.

Azken saioan Azaro fundazioko Ainhoa Arrizubieta Zabalak Lea Artibai eskualdearen esperientziaren berri eman zuen. Sakanak haien antzeko ibilbide bat izan du. Elkarlanetik esparruak sortuz joan ziren, elkarte kooperatiba lehenik, ikerkuntza zentroa... Guztia eskualdeko enpresa berriak sortu eta enpresa sarearen lehiakortasuna hobetzeko helburuz.



Behatokiaz erronkak aztertzen.

Erronkei begira

Sakanako Sozioekonomia Behatokiaren (SSB) deialdiari hainbat arlotako 20 bat sakandarrek erantzun zioten asteartean. Cederna Garalurreko Susana Mendinuetak eta Sakanako Garapen Agentziako Iker Manteolak, Aitor Eguzkitzak (industria eta energia), Odei Arregik (industria eta energia), Oskia Gorostiagak (elikadura) eta Paki Urbitartek (turismoa) joan den urtean egindakoen erreposoa egin zuten.

Bileran izandakoek joan den urtean emandakoak pauso txikiak izan zirela adierazi zuten. Nafarroako Gobernuarekin adostutako akordioa aintzat hartuta aurten eta aurrera begira erronkak daudela nabarmendu zuten. Zenbait zailtza argitu ondoren despeditu zen bilera. Aurkeztutako memoriak www.sakanagaratzen.com web orrian kontsultatzeko aukera izanen da.



Aingeru Mikeo

Nafarroa iratzarriko da

astekoa

hara zer dien

Emakumeak gizaki?

Horixe izan liteke Jose Mari Esparza Txalaparta argitaletxeko zuzendariak, berriki, Etxarrin aurkeztutako liburuaren izenburua. Aspaldiko gerraren eta urteen iraganaren ahanzturaren geruza moduko batek estalita eduki duen harribitxia ezagutzeko aukera eman digu idazleak; zehazki, urte askotan Nafarroako politikagintzan ardatz izan zen euskaltzale eta ezkertiarrena, David Jaime Dean.

Maisuki idatzitako liburuan, azaltzen da Etxarrin luzaro bizi izandakoa eta pertsona osoa izan zela, bai familiakoekin baita lagun eta politika kideekin ere, gizatasun handikoa, sentibera, zintzoa, jakintsua eta irmoa. Goren mailako politikaria, 36ko gerra aurretik Gobernuko parlamentaria, eta, ondoren, erbesteko Nafarroako Kontseiluaren presidentea.

Bere pentsaerari dagokionez, euskaldun petoa, 'abertzale' ez

izan arren, Euskal Estatutuaren aldeko amorratua eta Eusko Ikaskuntzako kide, errepublikazale argia, eta ezkertiar konprometua. Nagusiki, bi ardatz izan zituen haren pentsabideak. Bata, Estatutu burujabe baten inguruan euskaldun guztiak batzea, bestea, komunalak herriari itzultzea eta herritar behartsuenen duintasuna bermatuko zuen ekonomia garatzea. Halaxe, 1946ko Nafarroako Kontseiluaren gutun-irekian

zioen "gure hildakoen odolak, gure presoen eta umezurten oina-zeek eta negarrek, eta Nafarroaren duintasun irudiak, Nafarroan justizia ardatz izanen duen egoera ezartzea eskatzen dute".

Horregeatik, aspaldikoa dirudien arren, gaurkotasan osoa duen pertsonaia handia izan zelako, merezi du haren memoria berreskuratzea eta haren izena hizki handiz idaztea: David Jaime Dean.

barrutik kanpora

Arduratsu jokatu

Ez dakit norena izango den errua, merituak jasotzerakoan denak bereganatu nahi izaten dituzte, baina erruak banatu behar direnean ez du inork jabetu nahi. Gobernu osatzeko ahaleginak porrot egin eta gero, batak beste-ari botatzen diote errua. Guk denak jotzen ditugu errudun, garbi ikusi dugu ez batek eta ez besteak ez dutela maila politikorik eman eta norberak bere interesak gizartearen interesen gainetik ezarri dituela.

"Erruak ordaintzen dira" dio

esaera zaharrak. Egia da eta onartzen dugu norberak bere errua ordaindu behar izaten duenean, baina beste baten edo batzuen ordaintzeak erabat izorratzen gaitu, eta hau da hauteskunde hauetan gehienok daukagun sentipena. Berriz ere, gure burua hauteskunde kanpaina aspergarri batean murgilduta ikustea ez dugu batere gogoko, are gutxiago, gertatutakoaren etekina are-rioak jaso behar duenean.

Zer egin? 75 urteko jubilatuaz-kanik, bat bateko erantzuna buru-

ratzen zait: "bejondeiela eta hor konpon utzi pakean". Beharbada jubilatu askoren jarrerada: "nahi dutena egin behar dute, zertarako molestatu". Baina ez da hori. Pertsona borrokariaren borrokak zerikusi handia izan du beti gizartearen eman diren aurrera pausoetan eta gaur ere horrela da. Berritu dezagun gure ilusioa eta hartu dezagun gure protagonismoa.

Egin dizkiguten kalteak ordainduarazteko unea da, urte haue-
tan inposatu dituzten murrizke-

ten biktima ahulenak gara, gure ongizatea kolokan ezarri dute. Berreskuratu nahi ditugu gure eskubideak: pentsio duinak denontzat, kalitatezko zerbitzu publikoak, kalitatezko osasungintza, kopagoa kanpora, botika zerrenda berrosatu, dependetzia legea suspertu, pentsio fondoak eskuratu... Botoaz balia gaitzen min egiteko, botoz bakarrik ere ez, hainbeste kalte egin digutenei. Arduratsu joka dezagun.

SASOIA

objektibo tik



San Adrian, erdizka

Eguraldiak etxarriarrei festa egun kuttunena erdizka gozatzeko utzi ziren. Goizeko fritada eta meza basoan egin ziren, baina ondoren herrirako bidea hartu zuten, arratsalderako zaparradak iragarriak baitzeuden. Etxe eta elkarrean egin zituzten familiek ohiko bazkariak. Arratsaldean basoan beharko lukeen festa herrian egin zen. Dantzaldiarekin ordu txikiak arte iraun zuen ospakizunak.



Erlojuaren kontra...

aritu ziren, larunbatean, txirrindulariak. Iturmendin Nafarroako Erlojupeko Txapelketa jokatu zen, afizionatuen, juniorren eta kadeteen mailan. Iturmenditik La-kuntzaraino, irudi politik utzi zituzten. Gainera, txapelak Sakanan geratu ziren (ikus kirolak). Aurki irudi berberak ikusiko ditugu, garilaren 3an Emakumeen Nafarroako eta Euskadiko Erlojupeko Txapelketa jokatu baita Iturmendin.

objektibo tik: gutunak@guaixe.eus

Sakanako Immigrazio Zerbitzua

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Mainer Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILA: Garbifé Navarro Rodríguez • maketazioa@guaixe.eus
PUBLIZITATEA: María Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus

ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Larraitz Amadoz Lazkano
ZUZENTZAILEA: Miren Alonso
ARGITARATZAILA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800
Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus
DISEINU ZERBITZUA: GK • Ainhoa Etxeberria Pikabea •
gk@gkomunikazioa.eus
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • admin@guaixe.eus
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK 

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikako Salburordetza

>> Altsasu



Etxegabeen aterpeak 334 egonaldi izan zituen

Kaputxinoen komentuararen ondoren dago Altsasuko Udalaren etxegabeen aterpea. Joan zen urtean 334 egonaldi izan ziren han. Hau da, etxegabe zeuden eta Altsasun pasan zeuden pertsonen non loegin, afaria eta gosaria eman zien udal zerbitzuak, baita Gasteizerako, Iruñerako edo Tolosarako tren txartela ere. Horregatik, Nafarroako Gobernuak 16.191,01 euroko dirulaguntza eman dio Altsasuko Udalari. Kaputxinoetako egoitza oso baldintza eskasetan dago eta udala Nafarroako Gobernuari behin baino gehiagotan proposatu dio kamineroena zen etxeetako batean kokatzea zerbitzua.

Udala Udaltzaingoaren Foru Legearen diseinuan parte hartzen ari da

Altsasuko Udaleko ordezkariak eta Nafarroako beste 36 herrietako ostiralean M^o Jose Beaumontekin, Presidentzia, Funtzio Publiko, Barne eta Justizia kontseilariarekin elkartuz ziren Lizarran ostiralean. Martxoaren 15ean Tafallan egindako bilkuran hasi ziren Nafarroako Udaltzaingoaren Foru Legearen diseinuaren gainean lan egiten eta ostiralekoa segida izan zen. Legea egiteko lantaldea osatu zuten eta han hainbat udalen, gobernuren eta Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioaren ordezkariak izan dira. Topaketa horretan herriek dituzten udaltzain, alimite eta udal agenteen premiez aritu ziren.



>> SAKANA

Bertan kontsumitzearen aldeko mezua

Sakanako Dendarien Elkarreak Interneten birala bihurtu den kontzientziazio kanpaina martxan du

Lakuntza, Etxarri Aranatz, Altsasu eta Olatzagutiko establezimendu txikiak osatzen duten Sakanako Dendarien Elkarrea. Sakanako bertan kontsumitze arduraz jokatzeko deialdia egiteko elkarreak bere Facebookeko orrialdetik (facebook.com/sakanakodendariak/) bideo bat ezagutzera eman zuen astelehenean. Bi egunetan 200 aldiz baino gehiagotan elkarbanatu da eta 12.000 pertsona baino gehiagok ikusi dute.

Bideo hori Sakanako makina bat dendetan grabatu da. Haurrak dira protagonistak eta helduen papekak jokatzeko dituzte, dendari edo bezero gisa agertuz. "Sakanan enplegu sortzen" edo "etorkizunaren alde egiten dugu" moduko esaldiekin langabeziak astindutako ibarreen autonomoek eta enpresa txikiek duten garrantziak kontzientziatu nahi dituzte sakandarrak.

Nafarroako Gobernuak, udalek eta Sakanako Garapen Agentziak



Bideoaren aurkezpena Sakanako dendariek eta udal ordezkariak egin zuten.

lagunduta egin da bideoa. Sakanan gertuko merkataritza enpresen itxierengainean sentsibilizatu nahi du. Izan ere, krisiaren hasieratik itxiera horiek ez dira gelditu eta egun, ez dirudi geldituko direnik. Kanpainaren beste helburuetako bat, herrietako kaleak asteburuetan hutsik geratzen direla gaztigatzea da, "aisia data zehatzetan besterik ematen ez dela eta dagoeneko dena askok larunbatetan ez dutela irekitzen ikustaraztea da".

Zozketa

Bideoa dendari elkarrearen Facebook-eko profilean ikus daiteke. Orri horren jarraitzaile eginez edo bideoa partekatuz zozketa batean parte hartzeko aukera izanen da. Saria: Ultzama Amati hariztian zuhaitz gainean dauden suiteetarako hiru egonaldi.

>> SAKANA

Euskarazko udalekuetarako dirulaguntzak eskaintzen ditu Mank-ek

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak udalekutararen joanen diren Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Mailako ikasleendako dirulaguntzak ditu. Dirulaguntza horiek lortzeko honako baldintzak bete behar dira: udalekua euskara hutsezkoa izatea, 5 egun baino gehiago eta 15 egun baino gutxiago irautea eta garagarzaroaren

15etik irailaren 30era bitartean izatea.

Laguntza eskatu nahi dutenek irailaren 30era arteko epea izan behar dute zabalik. Horretarako hainbat agiri aurkeztu behar dira: eskabide ofiziala beteta; udaleku bera gatik beste administrazioek edo entitate pribatuk emandako laguntza guztien aitortzea; udalekura joandakoaren gurasoren baten

edo tutorearen nortasun agiriaren kopia; udalekura joan denaren erroldatze agiria; udalekuaren ezaugarriak biltzen dituen antolatzaileen agiria; antolatzaileen asistentzia agiria eta ordain agiria. Guztia Mank-ek Lakuntzan duen egoitzan aurkeztu behar da. Baldintzak betetzen dituzten artean Mank-ek laguntzetan 5.000 euro banatuko ditu.



Haurrak ibaian jolasean.

>>

Elizalde kontseilaria gobernuaren Irurtzungo bulegoan bisitan

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilaria Isabel Elizalde eta Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusi Eva Garciak, departamentuak Irurtzungen duen bulego bisitatu zuten asteartean. Bulego horretatik departamentuak Ultzama eta Sakanako eskualdea edo mugapea kudeatzen du. Irurtzungo bulegoan bertan departamentuko sei langilek egiten dute lan (lau administrarik eta bi albaitari teknikarik), hama bi basozainek (hiru kontratatutak),

baita Intiako teknikari batek eta Ganasa enpresa publikoko langile batek ere. Bulegoko langileek lur orotako zortzi ibilgailu dituzte.

Departamentuaren bulegoak lau egiteko ditu. Alde batetik, herritarrari informazio ematea, agiriak erregistratzea eta askotariko administrazio izapideak egiteko aukera eskaintzea. Bestetik, Abeltzaintza Zerbitzuarekin elkarlanean aritzen da. Basozaintzako bulegoari dagokionez, habitatekin zerikusia dutenen artean bertako faunaren kontrola eta jarrai-



Irurtzungo bulegoko langileekin argazkia atera zuten Elizalde eta Garciak.

pena dago. Espezieak kontserbatzeko errolda, lagin eta babes-jarduerak egiten dituzte, baso-igela jautzariaren eta pizidoena bereziki. Espezie exotiko inbaditzaile-

ak zaintzen dituzte, bisoi amerikarra bereziki, eta espazioak ere kontrolatzen dituzte, Aralarko mendia, esaterako.

Azkenik, ehiza eta arrantzari

dagokionez, basurdearen ehiza eta arrain-populazioaren jarraipena nabarmendu behar dira, amurrainarena bereziki. Ingurumeneko kalitateari dagokionez, departamentuak Ultzaman minda-planen jarraipenean egindako lana azpimarratu du, linea elektrikoek egindako kalteen txostenak, edo araztegi edo ubideen obren jarraipena.

85.641 hektarea

Ultzama-Sakana mugapeak azalera hori du. Haietatik 54.616 basokoak dira eta 34.179 Natura Sareari dagozkio. Nafarroako basoko dentsitate eta jarduera handienerako mugapeetako bat da, haritz eta pagoen baso asko dago bertan, eta jarduera horretan tokiko erakundeek inplikazio-maila handia dute.

» Irurtzun

Erraldoi konpartsa laguntza beharrean

Erraldoi eta buruhandi konpartsarik gabeko Irurtzongo festak ez dira irurtzundarren buruan sartzen. Baina hala izateko, konpartsa festetan izateko, jende askoren lana behar da eta konpartsa kideak laguntza beharrean daude. Interesa dutenek haiekin zuzenean harremanetan jar daitezke. Baina haien zeregina zein den erakutsi zuten ere. Igande eguerdian izan zen, Foru plazan.



Irurtzongo konpartsa kideek erraldoiak biluztu zituzten.

Erraldoiak prestatzen ikasi, haien barruan sartu eta erraldoiak mugitzeko aukera izan zuten hala nahi izan zuten guztiek. Konpartsakide izateko zereginak ezagutaraztea zen deialdiaren helburua. Horrekin batera, plazan elkartu ziren hurrek Gartzia Ximenez, Amaia, Teodosio eta Petronila erraldoien aurpegiak marrazkarekin kareta egiteko aukera izan zuten.

» Ziordia

Axio, lagunaren begietatik

Ziordiko frontoia beteta zegoela Jose Ignazio Floresen, Axioaren inguruko dokumentala ostiralean mustuzen. 40 minutuko ikus-entzuzko lanak Axioaren lagunak eta familiak hartaz duten oroitzapenak jaso ditu. Mustutzeak erakarrirako publikoaren gogokoa izan zen lana. Dokumentalaren aurretik sei aizkolarik enbor bana moztu zuten, txandaka. Dokumentalari musika jarri dion Peio Reparazek eman-

diaren aurretik parte hartu zuen, baita Flores ahizpek ere. Emanaldiaren ondoren, lana posible egin duten guztiei eskerrak eman zien Axioaren Lagunak taldeak.

DVD salgai

Axiori buruzko dokumentala bost eurotan dago salgai.



Axioaren dokumentala egiteko makina bat lagunak hartu dute parte.

» Altsasu

Segurtasun klaseari piper eginda

Guardia Civilaren sail ezberdinetako auto, furgoneta, moto, helikoptero, ontzi eta abar erakusketa modua jarriak. Haien ondoan erakunde kideak. Guardia Civilak erabiltzen duen bestelako materiala ere ikusgai zegoen asteazkenean kaputxinoen komentuko futbol zelaietan eta frontoian. Ikasleei haiek erakutsi eta azalpenak emateko jardueraren berri eman zien Guardia Civilak, gonbidapena luzatzearekin batera. Ez zuten erantzun handirik izan. Haren berri ematera joan zen etxe honetako kazetaria kanporatu egin zuten, "eremu pribatua" zela argudiatuta.

Antolatutakoaren berri azken unean izan zuen Ospa mugimenduak, "egun batetik bestera antolatu dute". Asteazkenean bertan mugimenduko kideak ikastetxeetako irteera garaian informazio orriak banatu zizkieten gurasoei, "balora zezaten euren seme-alabak halako tokietara eramatea ego-



Guardia Civilaren ibilgailuak kaputxinoen komentuko futbol zelaietan.

kia den hala ez." Ospak, bestalde, 15:30erako deialdia egin zuen. Foru plazatik kaputxinoetara joan ziren eta errepresioaren kontra oihuka iritsi ziren. Sartzerakoan isildu eta barruraino sartu ziren. Baina toki pribatua zela argudiatuta bota egin zituzten, "identifikatu eta grabatu ondoren."

Kontra

Ospatik azaldu zuten "pedagogia-

ren kontrako ekimen hori boikoteatu eta kontra egiteko beharrean" ikusi zirela. "Halako erakustaldi militarista batean balore hezitzaileak zabaltzea posible ote den" galdetu zuten, baita "Guardia Civilak Sakanan bake eta elkarbizitzarako baloreak transmititzen" ote dituen. Ekimena krisi garaian "gastuekonomiko neurri gabetzat" jo zuten. Ospako kideen iritziz, "ezkutatzensaiatu arren,

Sakanan polizia errepresioa bistakoa da eta ez dugu inolaz ere onartuko estatuaren polizia errepresioaren politikak manipula ditzaten."

Altsasuko EHBilduk, bestalde, "irmoki" salatu zuen ekimena. "EHBildutik uste dugu balore militaristak ez datozela inondik inora eskolek sustatu behar dituzten bake eta bizikidetzaren baloreekin. Uste dugu ekimen hau ez dela bate-re onargarria eta ez duela inongo formazio helbururik. Ze nolako hezkuntza mota da adin txikikoei armak banatzea? Ze baloreari dira sustatzen haur bati eskopeta, borra edo pilota-jaurtitzaila bat emanez?" Altsasuko EHBilduk Guardia Civilak herrian duen "presentzia itogarria" gogoan, antolatutako ekimena "haien irudia garbitzeko" ote zen galdetu zuen. "EHBildun bakea eta bizikidetzaren bezalako baloreen sustapenean sinisten dugu, herri honetan Guardia Zibilak inolaz ere ordezkatu ezin dituenak".

» Dorrao

Kontzejua, dagoenarekin aurrera

Dorraoko Kontzejua 51.500 euroko aurrekontua du aurten. Diru kopuru horrekin eskaintzen dituen zerbitzuak mantendu eta

kaleak berritzeko eskatu zuten mailegua pagatzeko, gutxi gehiagorako iristen zaio. Hala jakinarazi digu Iñaki Gaulabur Razkin kontzeju-buruak. "Asmoak bai baina dirurik ez dagoenez luzerako utzi ditugu hainbat asmo." Esaterako, herriarena den maistruban etxeko teiladura konpontzea izan daiteke haietako bat.

» Arakil

Udalak Baiona ezagutzeko irteera antolatu du

Hilaren 25ean, larunbatean, izanen da bidaia

Arakilgo Kultura Zerbitzuak Lapurdiko hiriburua ezagutzeko irteera antolatu du garagarriaren 25ean, 8:30ean. Euskal Museo-

an bisita gidatua izanen dute. 11:00etatik aurrera libre izanen dute katedrala edo azoka bisitatzeko, edo Baiona Kantuz ekimenean parte hartzeko. 13:30ean Kalostrape jatetxean bazkaltzera elkartuko dira. Ondoren, Donibane Lohitzunera joan dira, hondartzara. Izena emateko udaletxera jo behar da (948 500 101 edo 634 584 226).

» Irañeta

Udalak Ennecorekin bat egin du

Irañetako Udalak eta Nafarroa Bizirik fundazioak lankidetzara hitzarmena sinatu dute. Horren bidez, Irañetako Udalak legegintzaldi guztian Enneco, haritzaren memoria proiektua lagunduko du. Hala jasotzen da Juan Angel Beraza alkateak sinatutako akordioan.

» Irurtzun

Aizpeak udarako euskarazko tailer eskaintza egin du

Haur eta gaztetxoei zuzenduta daude eta hilaren 30era arte eman daiteke izena Martxeta liburudendan

Aizpeak, Irurtzongo euskaltzaleen topaguneak, udarako euskarazko tailer eskaintza prestatu du. Alde batetik, udako tailerra dago, agorriaren 1etik 12ra izanen dena, 11:00etatik 13:00etara. Lau eta hamar urte bitarteko haurrei zuzendutako eskaintza da. Hartan interesa duten gurasoek seme-alaben izena ematearekin batera, 20 euro ordaindu beharko dituzte.

Euskaltzale irurtzundarrak biltzen dituen taldearen udarako bigarren eskaintzak *ITB tailerra, mundura zabaldu* izenburua du. Munduko kulturak oinarri dituen Irurtzun Telebistaren saio bat nola egiten den ikasiko dute izena ematen duten 7 eta 14 urte bitarteko gaztetxoek. Tailer horrek bi txanda izanen ditu. Aurrena, agorriaren 22tik 30era, 11:00etatik 13:00etara eta, bigarrena, irailaren 1etik 9ra. Izena ematearekin batera 20 euro ordaindu behar dira. Aizpeatik jakinarazi dutenez taldeak sortu ahal izateko gutxienez 7 neska-mutiek eman beharko dute izena. Gehienezko kopurua 14 dira.

» Altsasu

Ospa mugimenduak mendi martxa antolatu du

Larunbatean, 9:30ean, Altsasuko Foru plazatik Bargagainera abiatuko da mendi martxa

Polizia indarrak eta militarrek alde egiteko eskaera berriro publiko eginen du Ospa mugimenduak. Larunbatean errepresioaren aurkakomendi martxa antolatu du Ospak, "errepresioaren aurkako aldarria Sakanan lau haizeetara zabaltzeko". Beste behin errepresio indarrak Euskal Herrikan konponahi dituztela berretsiko dute, "ez ditugulako nahi eta ez ditugulako behar." +www.guaixe.eus

Egitaraua

9:30ean Bargagainerantz, Foru plazatik.
10:00etan Basaluzeko dorrean, gazteluan, geldialdia.
11:30ean Ekitaldia Bargagaineran.
15:00etan Herri bazkaria.
17:30ean Errepresioaren kontrako argazki handia.
18:00etan Oñatiko Fan Hemendik egunera autoz joateko elkartzea, Foru plazan.

» Olatzagutia

Batukada feminista sortzeko deia

Izena eman nahi duenak berdintasuna.olazti@gmail.com e-posta helbidean egin dezake hilaren 29a baino lehen

Olatzagutiko Udaleko Berdintasun Zerbitzuak gonbidapen hori egingie herriko emakumeei: batukada feminista osatzea. Horretarako, tailerra antolatu du garilaren 1ean, ostira-lean, 16:00etatik 20:00etara. Berdintasun Zerbitzuti kazaldu dutenez, "ikasteaz aparte, gozatzea, emakumeon artean harremana izatea, talde-lanean eta elkarrekin ikastea, irudimena lantzea, sortzea, gidaritza hartzea, musikaz disfrutatu eta gozaraztea, emakumeak ikusiak eta entzunak izatea, aldarrikapenak plazaratzeko espazioak okupatu eta erabiltzea" da tailerraren helburua.

» SAKANA

**Institutuko 40 ikasleek gainditu dute selektibitatea**

Nafarroan aurkeztutako ikasleen %96,76k gainditu du

Joan den asteko asteazkena eta ostirala bitartean Altsasu Bigarren Hezkuntzako Institutuko 40 ikasleek selektibitate proba egin zuten. Haietatik 36k D ereduan ikasitakoak ziren eta gainontzeko lauak A ereduan. Denek gainditu dute unibertsitaterako sarbidea ematen duten probak.

Altsasu institutuan Batxilergoaren 2. mailan 59 ikasle matrikulatu ziren D ereduan. Haietatik 39k gainditu zuten ikasturtea eta selektibitate 36 aurkeztu ziren. A ereduari dagokionez, 12 ikasle matrikulatu ziren. Ikasturtea lauk gainditu zuten eta haiek izan dira selektibitate aurkeztu direnak.

» Altsasu

Udalaren Berdintasun Plana parte-hartze prozesuaren bidez osatuko da

Asteleheneetik aurrera planaren zirriborroa www.alsasua.net/eu/web/orrian izanen da. Ekarpeneak garilaren 8ra arte egin daitezke berdintasuna@altsasu.net e-postaren bidez

Altsasuko Udalaren Emakumearen eta Berdintasun Batzordeak 2016-2019 aldirako emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunerako jardueraren planaren zirriborroa adostu du. Baina altsasuarren ekarpenekin aberastu nahi du. Horregatik, gaur hasi eta garilaren 8ra bitartean parte hartze prozesua martxan jarri du. Batzordearen asmoa da jasotako ekarpenekin planari gehitzea, garileko udal bilkuran onartu eta udazkenerako plana indarrean egon dadin.

Batzordeak ekarpenak jasotzeko lau talderengana joko du, haiei zirriborroa eman, bilerak egin eta ekarpenak jasotzeko. Lehenik, udal bertako eta bere menpeko erakundeetako teknikariek bilduko dira. Bigarrenik, Altsasun lan egiten duten taldeekin. Emakumeen arloan lan egiten duten taldeen iritzia kontuan izanen dute ere. Azkenik, edozein altsasuarrek bere ekarpena egiteko aukera izanen du. Planari buruzko informazio gehiago nahi duenak asteartean, 11:00etan, edo hilaren 27an, astelehenean, 17:00etan, berdintasun teknikariak Gure Etxea eraikineko 1. solairuan duen bulegotik pasa daiteke.

Ildoak

Nafarroako berdintasun teknikariek, Nafarroako Gobernuaren Berdintasunerako Institutuak eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak udaletako berdintasun planak egiteko 2014an adostutako plangintzan oinarrituta dago Altsasun onartutako zirriborroa. Berdintasuna lortzeko bost ildo estrategiko zehaztu dituzte. Lehenik etxera begira jarri dira: emakumezkoen eta gizonezkoen aukera berdintasuna udal administrazioan zehar lerroa izanen da. Bigarrenik, Emakumeenganako indarkeriaren kontrako prebentzioa eta ezabatzea lan egiten da. Horrekin batera, emakumezkoak lan arloan guztiz integratzeko eta garatzeko



Batzordeko kideak, bilduta. Eragile ezberdinen ekarpenekin osatu nahi dute Udalaren Berdintasun Plana.

ildoak zehaztu da. Baita ezagutzaren eta informazioaren kultura ez sexista baten eraikuntzan ere. Azkenik, emakumezkoen hiritartasun osoa bermatzeko erabakiguneetan egotea eta baliabideak erabiltzea sustatuko dute.

Udal barrura begira, besteak beste, aurreikusten diren jardueretakoak dira: Berdintasunerako Lantaldea sortzea, talde politikoei urtero bi lan saio egitea, genero ikuspegia udal sailtan zein egoeratan dagoen aztertzea, diagnostika egitea, emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerako ordenantza onartzea edo garapen arloan genero ikuspegia txertatzea. Indarkeria sexistaren kontrako hainbat neurri jaso dira zirriborroan: emakumeenganako indarkeriaren kontrako koordinazio taldea sortzea, indarkeria

jasan duten emakumei arreta integrala ematen dien zerbitzua ezartzea, emakumei etengabe dituzten baliabideen berri ematea, emakumeenganako indarkeria izaten denerako protokoloa onartzea eta ikastetxeetan sexu indarkeriaren prebentzioarako programa garatzea.

Emakumeak lan munduan sartu ahal izateko kontziliazioarako tokiko ituna indartu eta jardueraren programa adostea aurreikusten da. Aldi berean, kontziliazio eskera erantzuteko udal zerbitzuak egokitzea ere nahi dute. Emaku-

mezkoen erabateko hiritartasuna sustatzeko banakako eta taldeko ahalduntzea sustatzeko programa onartuko da. Emakumezkoendako aholkularitza juridikoa mantentzearekin batera, udalaren berdintasun zerbitzua altsasuarren arlo horretan erakunde aholku emaile gisa identifikatzeko lana egiten da.

%60,78

Hori da aurreko berdintasun planaren betetzea maila. 102 jardueraren aurrekustean ziren eta 62 egin ziren. Neurri batean garatu ziren jarduerak 16 izan ziren (%15,68). Azkenik, 24 jarduerak egin gabe gelditu ziren (%23,52). Plan berriaren zirriborroan egin ez ziren jarduerak egokituta jaso dira. Baita aurreko planaren 2014ko ebaluazioan sortutako proposamenak ere.

Plana osatzeko bilerara deituko diren erakundeak

Enplegu bulegoa, Sakanako Enpresarien Elkarteak, CCOO, ELA, LAB, UGT, Zelandi eskola, Zelandiko guraso elkarteak, Iñigo Aritzak ikastola, Iñigo Aritzak ikastolako guraso elkarteak, Altsasu BHI, Altsasu BHIko guraso elkarteak, Sakana LHI, Sagrado Corazon ikastetxea, Sagrado Corazon ikastetxeko guraso elkarteak, Txirribulo haur eskolako guraso elkarteak, osasun etxea, Cederna-Garalur, Sakanako Garapen Agentzia, Sakana Garatzen, Foruzaingoa, Udaltzaingoa eta Helduen Etengabeko Prestakuntza.

Planaren osaketan parte hartuko duten udal teknikariak

Idazkaritza, hirigintzako aparejadorea, kontu hartzailea, lanen zerbitzua, udaltzainak, kultur teknikaria, gazteria teknikaria, kirol teknikaria, ludoteka, liburutegia, musika eskola, Txirribulo haurtzaindegia, Aita Barandiaran egoitza, Atabo eta gizarte zerbitzuen mankomunitatea.

Kronologia

2008ko apirilaren 7an Udalak Emakumezkoen eta gizonezkoen aukera berdintasunerako Altsasuko aurreneko plana onartu zuen, 2008-2011 aldirako. 2012 Aurreko planaren ebaluazioa egin zen, orain aurkeztutako planaren oinarria dena. 2016 Batzordeak planaren zirriborroa egin eta adostu zuen, parte-hartze prozesuamartxan jarri.

Aldatzea jarrera bat da.
Irabaztea gogobetetzea.

**Hyundai Tucson Berria. Spainian 2016ko kotxerik onena.**

Aldaketaren apustua egin eta irabazi dugu. Sari handi bat lortu dugu: Spainian 2016ko kotxerik onena izatea. Kotxe handi bati saria baina batez ere jarrera bati. Mila esker Hyundai Tucson kotxean apostu ezberdin bat ikusi duzuenoi.

Aldaketaren poterea nabaritu www.hyundai.es-en



AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A.
ALTSASU • 948 562 261 • IRURTZUN • 948 600 657 • www.autsanmiguel.com



Gama Hyundai Tucson: Isuriak CO₂(gr/km):
119-175. Kontsumo mixtoa (l/100km): 4,6-7,5.

» Lizarraga

Hiru eguneko festak aurretik

31. urtez jarraian Joselu Anaiak taldeak astelehenean dantzarako doinuak jarriko ditu

San Adrianen omenezko festak hartuko ditu Lizarragak bihurtik astelehenera arte eta sakandar guztiak ospakizunetan parte hartzera deitu dituzte. Festa egitarauko berrietasuna joan den urtean jaiotako haurrei eginen zaien omenaldia da. Xabier Senar kontzeju-buruak azaldu digunez, herrian sortutako umez aparte Lizarragara asteburu pasa etortzen direnak ere jasoko dute herriko ttattarra. "Lizarragako sustriak dituztela gogoratzeko" eginen da omenaldia.

Egitaraua

» Garagarriak 18,

larunbata

10:30etan Ezkilen errepikarekin batera San Adrianera igoera.

13:00etan Meza mendian.

17:30etan Dantzaldia Amalur taldearekin.

18:30etan Menditik jaitiera.

19:00etan Auzatea alkatearen etxean.

20:30etan Lizarragako zortzikoa herriko plazan eta 2015ean jaiotakoei festetako zapia ematea.

22:00etan Herri afaria.

00:00etan Dantzaldia The Trikiteens taldearekin.

Egun guztian zehar Amalur musika taldea giroa animatzen egongo da!

» Garagarriak 19,

igandea

11:30etan Amalur taldearekin kalejira.

13:15etan Herri meza.

14:00etan Amalur taldearekin kalejira.

17:00etan Bordetxe abere zirkoa.

19:00etan Auzatea herriko plazan.

19:00etan Mexikar musika

Los Tempanas taldearekin.

*Saldu diren txartelen zozketa egingo da kontzertuan zehar

» Garagarriak 20,

astelehena

11:00etan Gosaria eta patata tortila pintxo lehiaketa plazan.

Goizean Iñaki Bizkai akordeolariak giroa alaituko du.

15:00etan Herri bazkaria parkean, paella jatea.

16:30etik 19:30era Haurrendako puzgarriak frontoian.

20:00etan Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin.

21:00etan Herri afaria, plazan.

23:30etik 03:00etara Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin.

» Olatzagutia

Itur bedeinkatuaren ondoan, festa

Altzania magaleko basoan dagoen iturri bedeinkatu edo batueko iturriaren inguruan elkartuko dira olaztiarrak bihar. Burundar Txistulariak lagun dituztela, 10:30ean, San Migel plazatik kalejiran abiatuko dira. Ordu erdiko ibilbidearen akaberan hamaietakoa zain izanen dute. Horren ondoren, olaztiar koadrilak bazkariak prestatzen hasiko dira. Mahaira 14:30ean eseriko dira. Handik La Cigarra txarangaren doinuak jasoko ditu, 17:30ean. Herri-rua bueltatu aurretik sardina-jatea eginen dute. Eguraldiak lagunduko ez balu, azken hori herrian eginen litzateke.

San Joan ospakizunak Sakanan

San Joan ospakizunak eta suak

AIZKORBE

Gauerdia arte, bai

Aizkorbear guztiak 20:00etan frontoian elkartuko dira. Sua egiteko etxe bakoitzetik egurra eramanez dute eta su handi bat piztuko dute. Txistorra, urdaia eta saiheskiak erosten dituzte sutan prestatzeko. Gainera, etxeetatik entsaladak eta postreak eramanez dituzte denen artean jateko. Suak, brasak egin dituztean jaiak prestatzen dituzte propio prestatutako parrila erraldoian. Herri afariarako garaia izanen da. Bitartean, bizitzeko egur gehiago botako dute sura eta, afaldu ondoren, binaka eta taldeka su gainean saltoka ariko dira. Su handia denez, txikiendako eta adinduendako su txikiago bat ere egiten dute. Aizkorbetik gertu duten gune budistan egiten duten su handia ikusteko aukera dute ere.

ERROTZ

Plazan dago hitzordua

Erroztarrak elkartzeko aitzakia ederra izanen da San Juan bezpera. 21:30ak aldera dute hitzordua jarria Nafarroa plazan. Sua piztu eta brasa eginda, urdaia, txistorra eta bestelakoak prestatuko dituzte. Eta mokadu eta mokadu artean, su gainean saltoan ariko dira.

IZURDIAGA

Festen bezperan, sua

San Juan egunarekin batera hasiko dira Izurdiagako festak, hilaren 24an. Bezperan, hala ere, bestelako ospakizun baten aitzakiarekin elkartzeko aukera izanen dute izurdiagarrek: udako solstizioko ospakizuna. Kontzeju etxe inguruan 20:30ean elkartzeko deia egin da. Herriko etxeak txistor-jatea antolatuko du. Herriarrek eramandako arekin osatuko dira merendu-afariak. Iluntzearekin batera sua piztu eta haren gainean saltoka ariko dira. San Juan festak igandera arte izanen dira.

IRURTZUN

Su sorgindua

Udako solstizioko ospakizunetan parte hartzera deitu dituzte irurtzundarrak Aizpea, euskaltzaleen topagunetik. Zeinek bere afaria plazara eramanez eta 21:00etan elkarrekin afaltzeko gonbidapena egin dute. Jatekoaren lagungarri Foru plazan izanen den musika. Gaua ongi sartua dela baieztatzen duten bezain laster, 22:30 aldera, sorgin taldea Irurtzuno plazaz jabetzeko ohituradute. Haien nahia plazaren erdian piztutako suaren inguruan dantza egitea da. Akelarrera, apika, pertsonaia mitologikoak agertuko dira. Sorgin dantza gonbidapena ere bada, hura despedituta irurtzundarrak su gainean saltatzeko.

ETXEBERRI



Arbizuarrak, San Joan ermitan. Behean aitsasuarrak, suaren inguruan dantzan.



Jan eta salto

Urteko egunik luzeena eta gaurik motzena ospatzeko etxeberriarrak 21:00etan dute hitzordua jarria. Aurretik sutan erreko dena prestatzen eta itxura ematen ariko dira. Gau parteko otamenaren osagaiak urdaia eta txistorra izanen dira. Etxetik eramandako tortillekin otameneko menua osatuko dute. Tripako zuloa berdinduta, 22:00ak aldera piztuko dute gainetik pasako duten sua.

EGIARRETA

Elkartzeko aitzakia

Egiarretarrak elkarte inguruan elkartzeko aitzakia ezin hobea izanen da osteguneko, San Juan suena. Elkarrekin, koadrilak, jatekoak prestatuko dituzte eta kanpo aldean su txiki bat piztuko da, nahi duenak haren gainean salto egiteko.

ETXARREN

Su-gai erronda

Etxarrenge haur eta gurasoak 11:00etan elkartuko dira. Guztiak batera herrian barna ibiliko dira kalejira berezian. Izan ere, haien asmoa arratsalde erreko duten materiala jasotzea izanen da. Jasotakoa Aranburu frontoian ondoan utziko dute. Eguneko bigarren hitzordua, 20:00etako, etxarrendar guztiendako izanen da. Frontoian

kanpoko aldean txistor jatea prestatu izanen dute. Indarrak hartuta, sua piztu eta hari aurre egiten diote. Luze egon ziren Etxarrenen San Juan suak ospatu gabe, aurtengoa hiru-garren urtea da ospatzen dena.

EKAI

Jan da salto

Ekaitarrak biltzeko aitzakia ederra izanen da San Juan suarena. 21:00ak aldera goiko plazan, iturri ondoan, elkartuko dira. Sua piztu eta han prestatutako txistor eta urdaiarekin afari legea egiten dute. Txikiak salto egiteko sua prestatuko dute ere.

ZUHATZU

Ttakunen erritmora salto

Zuhazuarrek arropagarbitoki zahararen ondoan, herriko beheko partean elkartuko dira osteguneko, 20:00ak aldera. Afari-meriendarako txistorra eta bestelakoak izanen dituzte. Sua prestatu eta haren gainean salto egiten duten bezala, zuhazuarrek txalaparta jotzeko aukera ere izanen dute, tresna denen eskura jarriko baitute.

SATRUSTEGI

Ospakizun baterako bi su

Satrustegiarrek San Migel kalean

su txiki eta handi bana piztuko dituzte osteguneko. 20:00ak aldera elkartuko dira langintza horretan hasteko. Egiteko horiek despedituta txistorra, sardina eta odolki jatea izanen da hurbiltzen diren guztiendako. Jatekoak su txikian prestatuko dituzte. Eta jatekoak despeditutakoan su handiaren txanda izanen da. Azken horrengainean saltoka ibiltzeko aukera izanen da. Topaketa gauerdiraino luzatuko dute batzuk.

HIRIBERRI

Goizetik lan, iluntzean erretzeko

Gurdiak hartu eta hiriberriar txikiak larreetako agotza eta basoan botatuko egurrak jasoko dituzte ostegun goizean. Txitera elkarrekin ondoan pilatuko dute, iluntzean sua pizteko. Txitera elkarrekin zuzendaritzako kideek parrillan txistorra, urdaia eta saiheskiak prestatuko dituzte 20:00etan, hurbiltzen den guztiak asetzeko. 21:00etan, berriz, haurrek ekarritakoei su eman eta su gainean saltoka ariko dira.

IHABAR

Saltoen aurretik indarra hartzera

San Joan kalearen goiko aldean, autobia ondoan dagoen aparkalekuan elkartuko dira ihabardarrak. Hitzorduak 21:30 aldera jarria dute, otamenerako. Sutan txistorra eta sardinak prestatuko dituzte eta sagardoa eta ardoa banatuko dira. Gosea eta egardia berdindu ondoren, indartuta, suak saltatzeko garaia iritsiko da.

IRAÑETA

Ospakizuna, elkarte ondoan

Txapel-azpi elkarte irintarren bilgune bihurtuko da atzera ere osteguneko. 21:00ak aldera urdaia eta bestelakoekin afari-merienda izanen da. Eta eguzkia estaltzearekin batera, irintarren salto egiteko, elkartearen inguruan sua piztuko dute. Garai batean salto egiterakoan zera esaten zuten irintarren: zorriyek eta partzak, sarna fuera!

UHARTE ARAKIL

» Garagarzaroak 23, osteguna

17:45ean 2015ean jaiotako haurren omenaldia udaletxean.

18:00etan Festei hasiera emanen dion suzuria. Ondoren auzatea plazan Donibane jubilatutako elkarrekin antolatuta.

19:45ean Mikel Doneari harrera, Uharte Arakilgo konpartsa eta gaiteroekin.

20:00etan Meza.

21:00etan 7. Patata Tortilla Lehiaketa.

Tortillak 20.45etik 21.00etara aurkeztu behar dira. Ondoren tortilla dastaketa.

22:30ean San Juan Suak. Uharteko fanfarrea eta Zanpantzar taldearen parte hartzearekin. Herriko argiteria publikoa itzaliko da.

00:30etik 03.30era Dantzaldia Edelweiss taldearekin.

Festa igandera arte izanen dira.

San Joan ospakizunak Sakanan

ARRUAZU

Danbatekoen doinura saltoka

Frontoi ondoan sua piztu eta udalak auzatea eskainiko du: txistorra eta urdaia jateko, ardo edateko. Beste su bat ere izanen da, haren gainean salto egin ahal izateko. Azken hori piztearekin batera, Tomas Ganboa ezki-la-joleak errepika eskainiko du. Hari lagundu nahi dioten arbasuarrek ezki-la-dorrera igotzeko aukera izanen dute.

LAKUNTZA

Alturako auzatea

Udako solstizioko gauean lakuntzarrek auzoka eta koadrilako afaltzera elkartzen dira. Aurtengainera, Gure Esku Dagok ezki-la-dorrearen ondoko plazan afaltzeko deialdia egin du (ikus 3. orria). Iluntzearekin batera, 22:00etan, Lakuntzan barnasuak piztuko dira eta horrekin batera aurreneko saltoak etorriko dira. Ohikoa denez, ezki-la-dorrealakuntzarren bitoki bihurtuko da 22:00etatik 24:00etara. Nahi duen guztiak ezki-lak jotzeko aukera izanen du. Gauerdian saioak despeditzearekin batera, auzatea eskainiko da.

ARBIZU

Sua, festak pizteko

Festetan buruhandi berriak eta erraldoiak mustuko dira

Aurtengo festetan, San Juan egunean, buruhandiak eta erraldoiak mustuko dituzte arbizuarrek. Eider Garderen laguntzaz dozena erdi gurasok buruhandiak nola egiten ziren ikasi zuten. Euren kabuz lau buruhandi egiteko langintza hartu zuten eta neguan horretan aritu dira. Haien eskuetatik sortu dira Arbizuko neska-mutikoen atzetik lasterka ariko diren txerria (txistor egunari erreferentzia), sua (San Juan sua), aittuna eta amiñe (inauteritako pertsonaiak).

Aurretik Arbizuk bi buruhandi zituen: soldadu frantsesa eta sua. Biek karga handia zuten eta, horregatik, berriak egitea erabaki dute. Hala ere, karga handiko bi buruhandi horiek ere ez dute aurtengo festak galduko. Batuta birziklatze laborategiko kideen laguntzaz buruhandi zirenak erraldoi bihurtu dira. Erraldoi bereziak, karga handia dutenez, gurpil



Urdiaingo neskek, San Joan basilizara bidean. Baselizan San Joan kantaita abesten dute, uzta ona eskatzeko.

gainean mugituko direlako. Konpartsa eguerdiro kalean izanen da. Bestalde, aurtun 40 urte beteko dira emakume talde batek plazan estreinakoz merendatu zuenetik. Festak hilare 29ra arte luzatuko dira.

Egitaraua

>> **Garagarriak 23, osteguna,**

San Juan bezpera

19:30ean Suziria.

19:30ean San Juanera igoera Jaiak txarangarekin.

20:00etan Bezperak San Juanen Arbizuko eta Etxarriko abeslariarekin.

20:30ean Maria Lonbreren zaldiya.

21:30ean San Juandik jaitziera.

23:30etik 3:00etara Dantzaldia Trikidantz taldearekin.

UNANU

Su handia eta txikia

Mediku kontsultategiko zelaietan 20:30 aldera elkartuko dira unanuarrek. Bi su piztuko dituzte txiki bat haurrentako eta handiago helduendako. Sugainean saltoka ibili etagero, elkartutako guztiendako merendua afaria izanen da, 21:30ak aldera.

DORRAO

Sua, ospakizunen bezperan

Urteko gaurik motzenez dorrobar batzuk autobus geltoki inguruan elkartu eta han piztuko dute sua, gainetik salto egiteko. Ospakizunak, berez, San Juan egunarekin iritsiko dira Dorraora.

LIZARRAGA

Sua, Intxaurretan

San Juan bezperako sua Intxorretan kalean piztuko dute. Ergoienako udaletxe parean. Bospasei urte dira auzotarrek ohitura berreskuratu, su gainean saltatzeko sua piztu eta horren aitzakiarekin afaltzera elkartzen direla. Garai batean herriko karrika bakoitzean egiteko ohitura zegoen.

ETXARRI ARANATZ

Salto eta salto

Urteko gaurik motzenez hastear dela, Etxarri Aranazko auzoetan eta karriketaren suak pizteko garaia izanen da. Aurretik jasotako erregaiak ongi pilatuak izanen dira. Garren gainetik salto egiterakoan askok egun horretan propio esaten den leloa esanen dute: zorriyek eta partzak iltzeko!

BAKAIKU

Suak saltatzera

San Juan bezperan, iluntze aldera, San Juan suak piztuko dira Bakai-kun. Su nagusia elkartearen ondoan egonen da. Gauza txarrak sutara botatzeko ohitura berriko dute. Jakina, suak saltatzera animatuko dira bakaikuarrak.

ITURMENDI

Plazako suaren inguruan bilduta

Iturmendin ohitura da San Juan bezperan etxetarako egur loteak banatzea, baina aurtun aurretik egin dute banaketa. Iluntze aldera, 21:30ak aldera, San Juan sua piztuko dute

Arrano Beltza plazan eta afaltzera bilduko dira iturmendiarrak. Etxeko txikiei izozkiak banatuko diete eta helduendako auzatea izango da.

URDIAIN

Kantaita, baseliza, sua eta afariak

San Juan bezperan sainduaren ermita bisitatuko dute urdiaindarrak. Horretarako hitzordua 19:30ean jarri dute herriaren etxean. Kalejiran aldapa bera joanen dira urdiaindarrak ohiko jantziak aldean dituzten neskekin, dantzari txikiarekin eta txistulariekin batera. Ermitan elizkizuna izanen da eta hura despeditu ondoan, plazan, sua piztuko da. Haren ondoan neska gazteek uzta ona eskatzeko San Joan kantaita abestuko dute, elkarri eskua emanda erritmoa daramatela. Ondoren dantzarien txanda izanen da. Herriaren etxeak auzatea eskainiko du. Txikiak adarren muturretan sartutako arto koxkolak erreko dituzte. Ermita ingurukoak despeditu ondoren, herrira bueltan, koadrilaka edo auzoka, afariak egingen dituzte urdiaindarrak.

ALTSASU

Bi eguneko ospakizunak

San Juan ermitako elizkizunaren ondoren sua eta etxajuak piztuko dira. Azken horiek herrian barna gainontzeko suak pizteko deia izanen da. Altsasuko Udaletik sua pizteko zenbait gomendio eman

dituzte. Aurrena, zorua babesteko, ezinbestekoa da harea geruza lodia lurtean zabaltzea eta haren gainean sua egitea. Udalak haren denen eskura honako tokietan jarriko du: Pilotajauku, Amandrea (hilerria), Zubeztia, Zelai (Cai-xa zegoen tokia eta sutegia), Intxaurren (Eroski), Idertzagain (Xagu), Amaia (errotonda), Zumalakarregi eta Iortia (kultur gunea). Bestalde, sua pizteko basotik egurra hartu nahi dutenei botatako zuhaitz adarrak eta sasiak hartzeko aholkatu die; "lehorrak daude eta hobeki hartzen dute su." Festak ostiralean segituko du.

Egitaraua

>> **Garagarriak 23, osteguna**

17:30ean Txupinazoa San Joan Plazan trikitilariak lagunduta.

Dabitxi zirkuaren emanaldia eta haurrentzako sorpresak San Joan kalean.

18:45ean Txokolate-jana Beti Jai bikoteak girotua.

19:30ean Udalbatza, Altsasuko Txistulariekin batera, udaletxetik San Joango ermitara abiatuko da.

Udako solstizioa ospatzeko festa Foruen Plazan. Eguberaren Taldeak antolatuta.

20:00etan Auzatea.

20:30ean Festaren hasiera: San Joango ermitan sua piztea.

Herriko suak pizteko txupin iragarlea. Kalejira eta auzatea Foru Plazaraino.

21:30ean Beti Jai bikoteak eta Txorongo txarangak suak dauden kaleak girotuko ditu gauean zehar.

23:00etatik 2:00etara Dantzaldia Txiki Band taldearekin, San Joan kalean.

OLATZAGUTIA

Su ta su

Gaztetxe eta jubilatuek elkartearen ondoan, Sarasate plazan eta herriko beste hainbat karriketaren suak piztuko dituzte su gainean saltoka ibiltzeko. Lagun taldeak aritzen dira horretan. Zorua behar bezala babesteko udalak harea ematen du, baina hura udaletxean eskatu behar da, epea gaur despeditzen da.

ZIORDIA

Afaldu eta salto

Udako solstizioa ospatzera txupidien elkartuko dira ziordiarrak. 20:00etan herri kirol saioari ekinen diote. Gosea eginda, 21:30ean, mahaira afaltzera eseriko dira. Eta gaua ongi sartu dagoela, 22:30ean, sua piztuko dute parkean, lurtean dagoen metalezko iparrorrazaren gainean.

Bakaikuko festak 2016

Uztailaren 22tik 26ra

Bakaikuko Bakarrek- Etxea elkarteak festetan alokatuko da. Enkantearen hasierako prezioa 2.000 €-koa izango da lokal handiarentzat, eta 1.000 €-koa lokal txikiarentzat. Epearen bukaera uztailaren 1ean gaueko 22:00ean izango da.



Kontaktua / 636 377 291 - 630 625 466
bakarrekoetxea@gmail.com

kaxeta

liburudenda / paperdenda

Enkargatu zure testu liburuak



Fax Zerbitzua

Koloretako fotokopiak

Tel.: 948 460 477

Larrañeta 22, ETXARRI-ARANATZ

maríaeugenia Arrainak

ZOKKETA!!!
Barbakoa eta 100€ko txartela

zokketa eguna ekainak 25

Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722
El Ferial, 1 • 948 467 950 / Isidoro Melero • 948 467 725
www.pescaderiamariaeugenia.com



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza www.tanatoriosirache.com

Iker Borrega Arnedo

2012ko ekainaren 25ean

Zapi bat zurekin gogoratzeko

**Jose Antonio Goñi Jaca****"Joxean, Goñi, El Rubio..."**

(Osaneko Andre Mariko kofradea)

Geruarte Jose, gu G.P.S. partikularra.

Gu gurasuekin elkartu za daunekos: Sebastián eta Xele.

Beti yonen zarie gu biyotzetan.

Gu esker onak, biyotzes, momentu gor eta zeil hauten gu onduen yon zarien guziei, eskerrik asko debei, zuen otoi eta abestiyengatik.

Zure familie**Juan Kruz Larrea Rubio**
"Kaskol"

III. urteurrena

Inoiz ez zaitugu ahaztuko

Josune, Itsaso eta Oihan, Josune eta Xabier

2016ko ekainaren 20an

Jesus Goñi Araña

II. urteurrena

Adiorik ez, gero arte baizik.

Maite zaitugu.

**Zure familia****Oroigarriak****948 564 275****guaixe.iragarkilaburrak.com**

1 HIGIEZINAK

4 DENETARIK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

5 IBILGAILUAK

8 FAMILIA/ETXEA

3 LANA/NEGOZIOAK

6 HARREMANAK

NORBANAKOEN IRAGARKIAKWebgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu,
lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste**HARREMANETARAKO**Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: iragarki@guaixe.eus**LANA / NEGOZIOAK****LAN ESKAINTZA**

Fisioterapia zentroa eskualdatzen da. Bi konsulta eta errehabilitazio gelarekin. Sakanan. Telefonoz ez da informatzen. Tel 627 650 916.

HIGIEZINAK**ETXEBIZITZAK****SALGAI****Pisua salgai Etxarri Aranatzen.** 100 m², 4. solairua, igogailua badu, 3 logela, sukaldia, egongela, komuna eta 2 trasteleku. Argitasun handikoa, San Donatorantz begira. Interesatuak deitu 619 50 30 95 telefonora.**Lakuntzan pisua salgai.** 1. solairua, 3 logela, komuna, egongela eta sukaldia. 90 m². Tel 618 883 077.**ERRENTAN EMAN****Etxe bat baratzearekin alokatzen da Bakaikun.** 690 34 39 78 telefonora hots egin.**Lokalak****ERRENTAN EMAN****Unanuko Denok Bat Elkarteak alokatzen da festetarako.** Uztailaren 1etik 3ra. Informaziorako deitu 671 61 89 99 telefonora.**Iturmendiko Aritzaga elkarteko taberna-jatetxea alokatzen da festetan.** Uztailaren

14tik 18ra. Interesatuta daudenak ekainaren 17an 19:00etan elkarteko bulegoan agertu beharko dira.

DENETARIK**SALGAI****Olaztiko Coop. Transportes Sakana-n plaza bat salgai erretiroagatik.** Tel 670 27 64 57**OPATUTAKOAK / GALDUTAKOAK****OPATUTAKOAK****Altsasuko Udaltzaingoko Altsasun galdutako gauza hauek ditu:** diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.**LEHIAKETAK****Arbizuko play-back lehiaketa.** Arbizuko festetan izanen da. Izena eman nahi duenak Arbizuko liburategian eman dezake izena.**OHARRAK****Erburua Padel Txapelketa 2016.** Non: Olaztiko Erburua kiroldegia. Noiz: ostiral eta larunbata bitartean. Talde kipuruaren arabera liga egingo da eta ondoren playoffak. Izen ematea: ekainaren 6tik 18ra

(16 urtetik gorakoendako). Tel 948 564 512.

Gazteei jarritako isunak ordaintzeko. Euskal preso eta iheslariak aldeko abenduaren 30 ekimenean parte hartu zuten gazte sakandarrek, 6.000 euroko isuna jaso dute. Mozal legearen aplikazio horri elkartasunetik erantzun kolektiboa emateko dinamika martxan jarri dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korrontea zabaldu dute: ES67 3008 0014 2133 8075 1119.**Helduen Nafarroako Euskal Kantu Jaialdia.** Udazkenean izanen da. Izena eman nahi duenak nafarroakoeskalkantu@gmail.com edo amadominguez@tafallaika.stola.org e-postara idatzi dezake, helduen jaialdirako dela adieraziz.**Euskaldun bat euro bat.** Nafarroako erresuma-koa izan zen Baigorriko Etxauzia gaztelua euskaldunentzat berreskuratu nahi da. Nafartarren eta euskaldun guztien etxea izan dadin. Gure kultura, ekonomia, historia eta mugaz gaindiko harremanak antzinarazteko gunea bizia. Informazioa www.euskaldunbateurobat.com**Volkswagengoko langileendako deia.** Iruñeko lantegiak zure elkartasun proiektua deialdia bigarren urtez aurkeztu du. Bocalan Biak Bat fundazioak "Lau zango milaka irri" programa aurkeztu du laguntza deialdi horretarako. Proiektua aurkeztu duten Sakanako elkarte bakarra dira. Fundazioetik Volkswagen-eko langileei 24 proiektuaren aldeko botoa ematera animatu dituzte.**Nicoleren aldeko diru-bilketa.** Garun paralisia duen neska olaztiarra atzerrian operatzeko diru-bilketan ekarpena egin nahi duenak kontu korronte honetan sartu dezake dirua: ES 33 2100 5365 2301 0002 9770.**GoiEner Iruñean.** Landarek utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabete-ko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...**Autoenplegurako laguntza.** Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es**Mintzakide proiektua.** Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>**Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde.** Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.**Euskonek ekonomikoki laguntzeko kanpaina.** Informazio gehiago: www.euskonek.com/laguntza euskonek@euskonek.com, 943- 32 22 94.**JAIOTZAK**

- **Adei Galarza Fernandez de Garaialde y Lazkano**, maiatzaren 22an Iturmendin.
- **Aimar Eraso Sanchez**, ekainaren 5ean Etxarri Aranatzen.
- **Miguel Seoane Perez**, ekainaren 7an Altsasun.
- **Aranhe Razkin Beltza**, ekainaren 9an Etxarri Aranatzen.

HERIOTZAK

- **Juan Rubio Rubio**, ekainaren 6an Olaztin.
- **Isidora Iza Huizi**, ekainaren 6an Etxarri Aranatzen.
- **Maria Teresa Baraibar Monente**, ekainaren 12an Irurtzunen.
- **Juan Zubiria Ostiza**, ekainaren 13an Urdiainen.
- **Baldomera Cantero Holgado**, ekainaren 13an Altsasun.
- **Teresa Saez Mazkarian**, ekainaren 14an Altsasun

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

ARETO FUTBOLA

NAKATA, MAGNAREN FITXAKETA BERRIA: Carlitosen baja betetzera iritsi da Magna-Gurpea Xotara Eric Martel "Nakata" jokalaria.

ria. 24 urteko jokalaria hegal pibota da eta Peñiscola taldetik dator. Tomoki Yoshikawak beste urte batez jarraituko du Xotan.



kirola >>

Pilota

XLV. Olaztiko San Migel Txapelketa

Asteburuan XLV. Olaztiko San Migel Pilota Txapelketako 8. jardunaldia jokatu da. Emaizak: www.guaixe.eus

8. jardunaldia

Ostiralean, 20:00etan

3. maila: Alegria-Imaz / Ortiz-Mazkiaran

2. maila: Gorriti-Irañeta / Ginea-Lizarraga

Nagusia: Labaka-Arratibel / Murgiondo-Bergera

1. maila: Sueskun-Nogueira / Beunza-Iurgi

Larunbatean, 17:00etan

3. maila: Urtzi-Grados / Sobredo-Bobillo

2. maila: Barban-Xestero / Gelbenzu anaiak

1. maila: Lopez de Zubiria-Garziandia / Ioseba-Unai

Areto futbola

Danok Bat Etxarriko Torneoko txapelduna

Etxarriko Kadeteen Torneoko emaitzak:

1. finalerdia: Etxarri 2 - Osasuna 1

2. finalerdia: Real Union 0 - Danok Bat 2

3. eta 4. postuak: Osasuna 0 - Real Union 2

Final handia: Danok Bat 5 - Etxarri 0

Etxarri Aranatz Futbol Taldeak kadete mailako puntako torneo antolatu zuen larunbatean. Torneo Bizkaiko Danok Bat taldeak irabazi zuen, finalen Etxarri 5 eta 0 irabazi eta gero.



Yoseikan budo

Ikasturteari agur

Amets-Txui xoo taldearekin 150 kirolariek lantzen dute yoseikan budoa

Amets-Txui xoo yoseikan budo taldeak erakustaldia egin zuen asteartean Burunda pilotalekuan. Taldeak Etxarri Aranatz eta Altsasun ematen ditu klaseak eta guztira 150 pertsona inguru murgiltzen dira artemartzial honetan. Nolabait esateko, hainbat borroka modalitateko sintesia da yoseikan budoa. Eta yoseikan budoaren zeharkakotasu-

Pilota

Lasa IV.aren debuta

BIHAR, LARUNBATEAN, 22:00ETAN ADUR LASAK JAIOTERRIAN, ETXARRI ARANATZEN, DEBUTATUKO DU GARFE ENPRESAREKIN. XALAREKIN BIKOTEA OSATUTA, TITIN III.A ETA BEGINO IZANEN DITU AURKARI

Aitor Zubieta, Jose Javier Zabaleta, Joseba Ezkurdia eta Julen Martijari beste pilotari sakandar profesional bat batuko zaie: Adur Lasa etxarriarra. Oskar Lasaren ilobak bihar debutatuko du, Lasa

IV.a izenarekin, Etxarri Aranazko Euskalerriri pilotalekuan, Garfe enpresa errioxarrekin.

Primerako partida prestatu du Garfek, Etxarri Aranazko Udalen babesarekin. Lasa IV.ak Xala

izango du bikoa bere estreinaldian, Titin III.aren eta Beginoren kontra aritzeko. Etxarriko 22 urteko pilotariak adierazi digunez, "gogo askorekin, ilusioz beteta" dago bere debutarekin.



gertutik >>

"Ilusio handia daukat, Etxarri debutatuko dudalako gehienbat"

Adur Lasa

Pilotaria

Pilotari familia batetik zatoz. Horrek eragiten du?

Bai, asko. Oskar osaba pilotaria zenez, etxean beti pilota ikusten zen. Etxeko giroa pilota zen. Zuk berdina sentitzen duzu eta horrek bulkatzen zaitu. Txikitatik pilotan jokatzeko erakutsi didate.

Etxarriko pilota eskolan hasi zinen?

Bai, 12 urtera arte Etxarriko pilota eskolan aritu nintzen. Ventura Mundiñano zen irakaslea. Oso klub polita genuen; pilotari asko geunden eta oso ongi eramaten

zen. Felix Igoa ere bertan zebilen. Askok erakutsi zidan, asko diot berari eskertzeko. Gero Oskar, Aitor Zubieta... etorri ziren. Pena izan zen Venturak kluba utzi zue-nean bi urtez geldirik egon zela kluba. Etxarriko pilotariak beste taldetara joan behar izan genuen. Ni Burlatako eskolara joan nintzen eta bertan 4 urte inguru eman nituen. Ondoren Doneztebeko Erreka klubera joan nintzen, gaur egunera arte.

Afizionatuetan zer moduz?

Oso gustura. Erreko entrenam-

tzaila Patxi Ordokik konfiantza handia eman zidan. Nafarroako Herrien arteko bi txapelketa irabazi genituen, gero Euskal Herriko biak ere bai. Bakaikoarekin batera Malerrekako txapelkunordeak izan gara aurtan. Eta Nafarroako selekzioan ere gustura aritu gara. GRAVNI-an aurreko urtean txapelkunordeak izan ginon...

Garferen proposamena noiz iritsi zen?

Ni Asperekin nengoen entrenatzen. Egun batean Garfeko nagusiak, Tomasek, deitu zidan eurekin aritzeko interesa ote nuen galdezko. Ez nuen proposamena espero, baina aukera oso polita ikusi nuen, Garfen partida asko jokatzeko baitira oso pilotari onekin. Duela bi aste partida genuen Labriten, partida ikustera etorri ziren eta partida ondoren Garferekin kontratua sinatu nuen. Egia esan, ez nuen gehiegirik pentsatu. Ia aukera plaza-ratu zidatenetik baiezkoa eman nuen. Oso kontentu nago.

Profesionaleko salto hori ematea zaila da, ezta?

Kosta egiten da. Pilotari asko gauden, asko oso onak dira, 1 edo 2 igotzen dira profesionalek eta aukeratzeko zaila izaten da. Hortaz, aukera dagoenean ezin zaio ezetz esan. Pilotari guztien ametsa da goian egotea.

Atzelaria zara. Nola definituko zenuke zure jokoa?

Eskuinarekin hobeto defendatzen naiz, kolpea badaukat. Eta alde

Lasa IV.aren debuteko Etxarri Aranazko pilota jaialdia

Bihar, larunbatean, Euskalerriri pilotalekuan, 22:00etan:

Lau t'erdian:

Ansa / Murgiondo

Binaka:

Xala-Lasa IV.a / Titin III.a-Begino

Sarrera: 10 euro

ahulena nire ezkerre da; gehiago huts egiten dut ezkerrekin. Hori hobetzen saiatzen naiz.

Bihar debutatuko duzu Etxarri.

Oso partida ona jarri didate. Ilusio handia daukat, ez bakarrik debutatutako, gehienbat. Zure herrian, zure jendearen aurrean, koadrila, lagunak... ez zen berdina izango beste herri batean izango balitz. Etxarri jokatzeko niretzat espeziala da.

Zer nolako uda espero duzu?

Uda mugitua izango da. Astero partida bat edo bi jokatzeko aurreikusitako da. Nafarroan eta Errioxan partida gehiago antolatzea espero da eta asko jokatu dugu.

Zer dio osaba Oskarrek? Nola ikusten zaitu?

Beti gaizki (kar kar). Ez dago entrenamendu bat garraxiren bat botatzen ez didana. Biak entrenatzen dugu sarri. Niri gustatzen zait berak garraxi egitea, horrek nik gaizki egin dudana hobetzea ekartzen duelako. Eskertzen dut berak garraxi egitea (kar kar).

Etxekoak kontentu egongo dira.

Ni kontentu nago baina etxean gehiago. Jabe naiz gertatzen ari denaz, baina frontoian nago zentratuago, entrenamenduan. Beraiek biharkoan dute gehiago burua.

Urduri zaude?

Bihar, azkeneko egunean jarriko naiz. Orain debuta iristeko irrikitan nago, gogo handirekin.



Amets-Txui xoo yoseikan budo taldeko kirolariek talde argazkia atera zuten. NEREA MAZKIARAN

rriko Andra Mari ikastolan. Udan 6 eta 13 urte arteko neska-mutiltako kanpaldiak antolatzen dituzte. Aurtengoa uztailearen 8tik 10era

bitartean izanen da, Uitzin.

Taldeko borrokalariak primerako emaitzak lortu dituzte. Esaterako, asteburu honetan Espainiako

Combat Jujitsu Txapelketan arituko dira Oihan Arnanz, Manex Goikoetxea, Xuban Muñoz eta Aritz Agirrebengoa, Katalunian.

Mendi lasterketak

Lakuntza-Aralar: Ben Daoudek ia 6 minututan hobetu zuen errekorra

Alizia Olazabal errekorra apurtzetik 27 segundora geratu zen. Proba laburrean Alberto Martinez lakuntzarra eta Izaskun Beunza olaztiarra gailendu ziren

Sakandarrak XIII. Lakuntza-Aralar mendiko lasterketan

IBILBIDE LUZEA (24,7 KM)

Gizonak:

1.	Hamid Ben Daoud (Derio)	1:52:17
5.	Beñat Katarain (Lak.)	2:04:07
14.	Aritz Munarriz (Etx.)	2:16:12
17.	Alberto Razkin (Etx.)	2:19:03
25.	Israel Arbizu (Etx.)	2:22:28
26.	Aritz Pellejero (Lak.)	2:22:38
27.	Patxi Cano (Alts.)	2:23:04
29.	Fran Araña (Arb.)	2:23:55
39.	Aitor Mozo (Lak.)	2:27:09
45.	Iosu Garmendia (Etx.)	2:29:31
46.	Andoni Azanza (Alts.)	2:29:57
50.	Fco Javier Gomez (Alts.)	2:31:30
53.	J. Jav. Beregaña (Uhar.)	2:32:09
62.	M. Angel Asurabarrena (Lak.)	2:37:49
72.	Iker Flores (Alts.)	2:41:09
77.	Javier Gonzalo (Uhar.)	2:42:46
84.	Luis Areta (Lak.)	2:45:41
90.	Ander Vinagre (Alts.)	2:49:22

Emakumeak

1.	Alizia Olazabal (Irun)	2:26:57
7.	Ginesa Lopez (Alts.)	2:49:42

IBILBIDE MOTZA (13 KM)

Gizonak:

1.	Alberto Martinez (Lak.)	1:04:51
6.	Raul Audikana (Olaz.)	1:10:31
9.	Alatz Agirre (Arb.)	1:11:16
14.	Alejandro Zabala (Lak.)	1:17:33
23.	Xabier Urrestarazu (Etx.)	1:24:09
32.	Ander Orabengoa (Olaz.)	1:27:27
39.	Ekain Alegre (Alts.)	1:29:32
42.	Inhar Astiz (Uhar.)	1:33:30
45.	Luismi Chaves (Lak.)	1:36:46
48.	Joxi Lazkoz (Lak.)	1:41:27
49.	Raul Moro (Etx.)	1:41:27
59.	Unai Razkin (Irun)	1:50:21
61.	Josu Ducar (Arb.)	1:53:52

Emakumeak:

1.	Izaskun Beunza (Olaz.)	1:24:12
2.	Maria Goikoetxea (Etx.)	1:27:35
6.	Leire Palacios (Alts.)	1:41:34
7.	Marta Diego (Alts.)	1:41:51
14.	Amalia Gerrikagoitia (Arb.)	1:53:52
16.	Haizea R. de Alda (Alts.)	1:54:42
17.	Mari Jose Arza (Alts.)	1:56:09
18.	Isabel Pozueta (Alts.)	1:56:09

Ikusgarria izan zen igandean Lakuntza-jokatutako XIII. Lakuntza-Aralar Mendiko Lasterketa. Aurtan, lehenengoz, ohiko lasterketarekin batera (24,7 km, 1.114 m desnibel+), lasterketa laburra (13 km, 640 m desnibel +) antolatu zuen Zabalartek. Guztira 250 korrikalari aritu ziren, 170 proba nagusian eta 80 laburrean.

Korrikalari guztiak elkarrekin joan ziren Guardetxeraino. Ibilbide luzeak Belokiko lepora, Unako putzura eta Hirumugarrietako tontorreraino iritsi ziren, Pagomaritik eta Aranguneko portutik Lakuntzaraino jaitsiz. Aldiz, ibilbide motzekoek Guardetxetik Laruzgaineraino iritsi ziren eta Etxaltzetatik eta Aranguneko portutik jaitsi ziren Lakuntzaraino.

Ibilbide laburra, sakandarrena

Alberto Martinez lakuntzarrak ia oharkabean hartu zituen antolatzailerak, ordu bat pasatxo iritsi baitzen helmugara (1:04:51). Ia 3 minutu atera zizkion Mikel Senperena abaltzisketarrari (1:07:15). Emakumezkoetan Izaskun Beunza olaztiarra izan zen txapelduna (1:24:12). Hiru minutu pasa atera zizkion Maria Goikoetxea etxarriarrari (1:27:35). Aipatzekoa da sakandar ugari aritu zirela proban. Proba laburra antolatzea oso begi onez hartu zuten korrikalariak. Tartean zeuden Dantzaleku-Sakana klubeko mendi atletik sortutako emakumeen taldekoak. Euren lehenengo mendi lasterketa izan zen eta proba bukatu izanagatik kontenttu zeuden.

Ben Daoud, ikaragarria

Guardetxera soilik 32 minututan igo zen Hamid Ben Daoud 20 urteko gazte deriotarra eta erritmo altuari eutsi zion. Helmugara 1:52:17an iritsi zen, Aritz Egeak 2014an lortutako marka (1:58:05) ia 6 minututan hobetuz. Ia 10 minutu atera zizkion Juanjo Igarzabal gipuzkoarrari (2:02:37). Beñat Katarain lakuntzarra 5.a iritsi zen (2:04:07).

Junior mailan Espainiako kross txapelduna lautan eta Espainiako pista txapelduna bostetan izan da Ben Daoud, baina bere lehendabiziko mendi lasterketa zen Lakuntzako, duela hiru urte beste batean aritu ondoren. Lakuntza-Aralarreko txapelduna izateaz gain, lehen promesaren saria jaso zuen. Etor-



Ibilbide luze eta motzeko podiuma. Katarain lakuntzarrak, Zegaman bizi denez, lehen sakandarraren trofeoa Munarriz ematea erabaki zuen.

kizun oparoa, berea. "Izugarri gusatu zait proba, zirkuitu oso polita da" adierazi zuen.

Emakumezkoetan 2014an Sandra Sevillanok lortutako errekorra (2:26:30) ia apurtzekotan egon zen

Alizia Olazabal korrikalari beterranoa (2:26:57). "Lesio bat gainditzetik nator eta proba bukatzea, hori zen nire helburua. Eta begira, inoizko denborarik onena egin dut eta ia errekorra apurtzekotan egon naiz" zihoen 46 urteko irundarrak. Minutu eta erdira sartu zen Milder Fraile (2:28:29). Lehen sakandarra mendi lasterketan debutatu duen Ginesa Lopez izan zen, emakumezkoetan zazpigarrena (2:49:42).

Auzatea eta sariak

Korrikalari guztiak kamiseta eta produktu lotea jaso zuten opari. Gainera, makina bat sari zozketatu ziren. Proba nagusiko irabazleek 250 euro, bigarrenek 150 euro eta hirugarrenek 100 euro jaso zituzten. Errekorra gainditzeagatik beste 150 euro jaso zituen Ben Daoudek. Gainontzeko saritutako endako trofeoak izan ziren. Helmugan auzate ederra zuten zai korrikalariak, gogoz eskertu zuten. Zabalarteko antolakuntza bikaina goraitu zuten. Argazkiak: www.guaixe.eus

Luciernaga elkarte oso eskertuta



Nafarroako Asperger sindromea eta TEA duten pertsonen senitarakoak biltzen dituen Luciernaga Elkarte lagundu zuen Zabalarte klubak. Horrela, Lakuntza-Aralar lasterketa abiatu eta ordu erdira, Luciernagaren aldeko lasterketa solidarioa burutu zen Lakuntzan, Lakuntzako plazatik behera bueltatxo bat. Txiki, gazte eta heldu, guztiok bat egin zuten ekimenarekin. Dorsalak 2 eurotan saldu ziren, Luciernagaren alde, eta horretaz gain produktu ezberdinen denda jarri zuen Luciernagak. Elkarrekin eskerrak eman dizkio Zabalarteri eta ekimenarekin bat egin zuten guztiak. "Zuen guztion elkartasunari esker 1.200 euro bildu ditugu gure neska-mutikoendako. Milesker zuen eskuzabaltasunagatik" adierazi dute elkartetik.

Taekwondo

Bargagainen erakustaldia



Igandean kurtso bukaerako erakustaldia egin zuen Bargagainen Taekwondo klubak Zelandi kiroldegian. Aurtan 60 neska-mutiko trebatu

dira arte martzial honetan, Gerardo Montero Rivera irakaslearen esanetara. Ikasturtean ikasitako erakutsi zuten, gogoz.

Irristaketa

Sariekin

Asteburuan Antsoainen jokatutako irristaketa probatik Sakana Irristaketa Taldeko kideak sariekin itzuli dira. Eneko Pintok lehenengo postua lortu zuen eta Iraixe Lapuentek hirugarrena.



Automobilismoa

Ibardin igoeran primeran

Iban Lopez de Goikoetxea sailkapen orokorrean 11.a sailkatu zen eta Copa Turboko lehena izan zen

Larunbatean I. Ibardin Igoera jokatu zen, Nafarroako Mendi Igoeren Txapelketarako baliagarria zen bigarren proba eta Copa Renault Turbo txapelketarako baliagarria zen proba. 4,5 km-ko ibilbide tekniko eta irristakorra zen. Sakana Motorsport taldeko 3 pilotu lehiatu ziren: Iban Lopez de Goikoetxea (Renault 5 GT Turbo), Iker Palacios (Speed Car) eta Mikel Mendiñueta (Peugeot 205 GTi).

30 pilotu lortu zuten proba despeditza. Arkaitz Ordoki (BRC) izan zen azkarrena (3:01). Lehen sakandarra Iban Lopez de Goikoetxea izan zen, klasifikazioan 11.a (3:29). Bere mailan, FL mailan, hirugarren nafarra izan zen, eta Renault Turbo Txapelketan lehena. Iker Palacios 13.a sailkatu zen (3:30) eta Mikel Mendiñueta 21.a (3:37).



Iban saria jasotzen. ARGAZKIA: AVM

Mendia

Uharte Arakil-Irurtzun, Sakanako Mendizaleekin

Uharte Arakildik aterata, Irurtzuna iristea da iganderako Sakanako Mendizaleak taldeak jarri duen erronka, gure mendi, bidezidor eta txoko bikainetatik pasata. Goizeko 8:00etan abiatuko dira Uhartetik. Ez da autobusik antolatuko.

EMAKUMEAK

Dantzaleku Sakana klubeko mendi ataleko emakumeak igandean 8:30ean Altsasuko Foru plazatik Txorrokopuntara abiatuko dira.

AZKENZALE EGUNA

Etxarri Aranatzeko Azkenzale edo Finalista eguna ospatu zuten ekainaren 5ean, Aurtzetzen.



Duatloia

Juan Luis Maiza munduko txapeldunordea

Sakana Triatloi Taldeko Juan Luis Maiza etxarriarra eta Sergio Garcia de Eulate altsasuarra ekainaren lehenasteburuan Avilesen izan ziren, Espainiako selekzioarekin Munduko Duatloi Txapelketan parte hartzen. Juan Luis Maiza 50 eta 54 urte arteko Sprint Distantziako Munduko Duatloi Txapelketan arituzen. Ingalaterrako Wayne Aylesbury izan zen txapelduna (1:04:57) eta Juan Luis Maiza bigarrena izan zen, 14 segundora (1:05:11). Etxarriarrak korrikako lehen zati bikaina egin zuen, txirrindularitzako tartean lehen multzoan sartu zen eta nahiz eta azkeneko trantsiziora lehendabiziko postuan sartu, Aylesburyk gainditu zion. Merito handiko txapeldunordea dugu.

Sergio Garcia de Eulate 35 eta 39 urte arteko txapelketan lehiatu zen, distantzia estandarrean. Ezzen ero ibili eta Olivier Fremy frantziarrak irabazitako proban (2:00:06) 16. sailkatu zen altsasuarra (2:10:09).



Juan Luis Maiza. SAKANA TRIATLOI TALDEA

eta Mikel Lakuntza 260.a (5:05:46). Bestalde, igandean jokatu eta Ander Okamikak (1:03:21) eta Grace Musgrovek (1:17:15) irabazitako II. Donostriko Sprint Triatloian Jose Ignazio Mikeo 43.a sailkatu zen (1:14:04) eta Juantxo Azurmendi 192.a (1:26:32).

Zarautz eta Donostia

Larunbatean Zarauzko Triatloia jokatu zen (2,9 igerian, 81 km bizikletan eta 20 km korrikari). 600 triatleta pasa aritu ziren eta Eneko Llanos (3:52:26) eta Ainhoa Murua (4:26:24) gailendu ziren. Sergio Garcia de Eulate 120.a sailkatu zen (4:45:03), Iñaki Alvaro 229.a (5:01:19)

Txikienak Basaurin

Kategoria txikikoak III. Basaburua Duatloian lehiatu ziren. Benjaminetan Ekain Imazek irabazi zuen proba eta Alain Razkin 4.a sailkatu zen. Kimuen emakumezkoetan Nahia Imaz 3.a sailkatu zen eta kimuen gizonezkoetan Hegoi Lakuntza 4.a.

Txirrindularitza

Josu eta Asier Etxeberria txapeldunak

Nafarroako Erlojupeko Txapelketa irabazi zuten, Iturmendin

Larunbatean IV. Iturmendiko Erlojupeko Trofeoa jokatu zen, kadeeten eta juniorren Nafarroako Erlojupeko Txapelketa, 23 urtez azpiko eta elite mailako afizionatuen Nafarroako Txapelketa eta 23 urtez azpiko Euskadiko Erlojupeko Txapelketa zena.

Afizionatuetan txapelduna Jorge Azanzak zuzentzen duen Euskadi Fundazioko Diego Lopez izan zen. Mazkiaranez zuzentzen duen Rural Kutxako Ander Alonso 7.a sailkatu zen. Eneko Aramendia 13.a eta Pablo Villar 19.a izan ziren.

Nafarroako Erlojupeko Txapelketa

Afizionatuak (19 km)

1. Diego Lopez (Euskadi) 25:14
13. Eneko Aramendia (Rural K) 26:38
19. Pablo Villar (Telcom) 27:43

Juniorrak (14 km)

1. Asier Etxeberria (Q.Albeniz) 19:16
4. Hodei Zia (Q.Albeniz) 19:37
6. Xabier Maiza (Q.Albeniz) 19:41
8. Alex Unzilla (Q.Albeniz) 20:10
15. Oihan Vinagre (Q.Albeniz) 20:50

Kadeteak (10 km)

1. Josu Etxeberria (I. Irabia) 13:33
2. Ailetz Lasa (Q.Albeniz) 13:41
3. Javier Mitxaus (I. Irabia) 14:49
7. Unai Villalobos (Q.Albeniz) 15:00
8. Urko Gorriti (I. Irabia) 15:02
12. Iker Cerviño (Q.Albeniz) 15:23
13. Beñat Etxezarreta (I. Irabia) 15:24
16. Iosu Jaka (Q.Albeniz) 15:31
18. Imanol Galarza (I. Irabia) 15:37
25. Ander Rosado (I. Irabia) 16:01
28. Joseba Huarte (I. Irabia) 16:13
31. Unai Lizarraga (I. Irabia) 16:22
40. Xabier Mauleon (I. Irabia) 16:47

Nafarroako txapeldunak



Burundako Quesos Albenizeko Asier Etxeberria izan zen jubenilen Nafarroako txapelduna (19:16). Bere taldekide Hodei Zia 4.a sailkatu zen (19:37). Taldeka, Quesos Albeniz izan zen onena. Eta kadeteetan Aralarko Instersport Irabiako Josu Etxeberria iturmendiarrak Nafarroako txapeldun berria dugu (13:33). 8 segundo atera zizkion Q. Albenizeko Ailetz Lasari (13:41). Irabiako Jabier Mitxaus osatu zuen podiuma (14:49). Taldeka Irabia izan zen onena.

Taldekakoan Q. Albeniz txapeldun kadeteetan



Hurrengo egunean Nafarroako Taldekako Erlojupeko Txapelketa jokatu zen Tafallan. Juniorren mailan (22 km) Asesores de Navarra taldea izan zen txapelduna (31:15). Quesos Albeniz 2.a sailkatu zen, 4 segundora (31:19). Kadeteen mailan (15 km) Quesos Albeniz izan zen Nafarroako txapelduna (20:35). Aralar klubeko Instersport Irabia 3.a sailkatu zen (21:22).

Enduro

Enduroa Irañetan

Igandean IV. Enduro Irañeta proba jokatu da. Enduroa motokrossaren eta trialaren nahasketa da: motokrossaren abiadura eta trialaren teknika nahasten ditu.

Goizeko 8:00etatik aurrera motoren egiaztapenak egingen dira. Goizeko 10:00etan abiatuko da lehen pilotua eta 14:30etarako aurreikusitako sari banaketa. Bertan pilotusak andarrak ariko dira, Marcos Beraza irintarra tartean.

Mendi txirrindularitza / BTT

598 biker Altsasuko BTT festan

Bikain atera zen eguna baina bukaera aldera bihotzekoa izan zuen biker gipuzkoar batek eta helikopteroz eraman behar izan zuten ospitalera

Barranka Txirrindulari Taldeak antolatutako 21. Altsasu BTT Zeharkaldia igandean jokatu zen. Bikain zihuan eguna, baina, tamalez, 50 urte inguruko biker gipuzkoar batek bihotzekoa izan zuen proba bukatzean, 44 kilometroan, Orobe harrobitik gertu. Nafarroako Ospitaleko helikoptero batek ospitalera eraman behar izan zuen.

“Orain arte 21 urte hauetan ohiko kolpe eta hausturetatik aparte ez da ezer larririk gertatu. Nahiz eta jakin halako gauzak ez direla antolakuntzaren errua, beti arantz hori gelditzen zaizu” adierazi zuen Barranka Txirrindulari Taldeko Julian Claverrek.

Probari dagokionez, Claverrek aipatu zigun bikain atera zela eta antolakuntza aldetik horniduraren fin ibili zirela. “Oso zaila da zenbat pertsona aritu behar diren kontrolatzea. Guk 600 pertsonendako kamiseta eta opariak genituen. Eta pentsa, 598 bikerrek eman zuten izena. Guztiak jaso zuten, beraz, oparia eta horretaz gain hainbat sari



Paraje zoragarrietatik pasatzen zen ibilbidea. ANA VILCHES

zozketatu genituen denen artean” gaineratu du Claverrek.

Bi aukera zeuden: luzea (47 km) eta motza (34 km). Urdalurrera arte bi ibilbideak bat egin zuten. Han, luzea hautatu zutenek Irumugaraino jo zuten, Beunderaino iristeko. Eta motzekoak, aldiz, Urdalurretik Beundera joan ziren zuzenean. Bertan hornidura gune nagusia zegoen eta hortik aurrera bi ibilbideek batera jarraitu zuten, Txurruko puntara. “Tarte berria zen hori, orain arte jaitsi gabekoa. Eta izugarri gustatu zitzaizkien bikerrei. Gainera eguraldiak lagundu zuen eta egun zoragarria pasatu zuten”.

Aipatzekoa da Ekhi Congil etxarriarrak monozikloz osatu zuela ibilbidea. Asko gozatu zuela nabarmendu zuen. Hori da, hain zuzen, helburua, gorpil gainean gure paraje zoragarrietan disfrutatzea.

Guztia ongi ateratzeko Barranka Txirrindularitza Taldearen esanetara 100 pertsona inguru aritu ziren lanean.



Ekhi Congil, monozikloz. ANA VILCHES

Botxa

Lirainak txapeldun



Iratxo Botxa Txapelketa 2016ko finalistak, sariek. M. GOLDARAZENA

Iratxo Botxa Txapelketak baditu txapeldunak. Final handian Lirainak taldeko Santos Iragak, Julen Iragak eta Marian Morenok alde gutxiatik irabazi zieten, 20 eta 19, Txutxurrini, Jabierri eta Migeli, final oso borrokatuan. Giro bikaina izan zen Iratxoko botxategian. Bukaeran sari ematea izan zen.

Iratxo Botxa Txapelketa

Finalerdiak
Lirainak (Santos, Julen eta Marian) **20** / Tximeleta (Pakita, Josune, Alizia) **7**
Xabier-Migel-Txutxurrin **20** / Iñigo-Jabier-Xabier **13**
Finalak
3. eta 4. postuak: Tximeleta **10** / Iñigo-Jabier-Xabier **20**
Finala: Lirainak **20** / Txutxurrin-Jabier-Migel **19**



Zinemako soinu bandez osatutako kontzertua

Larunbatean, 20:00etan, Altsasuko lortia kultur gunean

Erkudengo Ama abesbatza pelikuletako soinu bandez osatutako erreperitorioarekin heldu zaigu oraingoran. Pantaila handian irudiak laguntzen entzundako soinu banden zatiek osatuko dute biharko eskain-

tza, esaterako, *Candilejas*, *Los Miserables*, *La Misión*, *Los Chicos del Coro*, *Sobre el Arco Iris*, *El Enemigo Público* eta beste film batzuetako kantuak abestuko ditu.

Biharko emanaldian Erkudengo Ama abesbatza ez da bakarrik ariko. Alde batetik, Altsasuko Udal Musika eta Dantza Eskolako abesbatzako ikasle batzuen laguntza



izanen du bi kantutan. Bestetik, bi kantetan Iskiza gimnasia erritmikoko talde bat ariko da. Azkenik, aipatu eskolako perkusio ikasle den Hodei Alegrek beste kantu batean lagunduko du abesbatza. Kantuak irudiez lagunduta joanen dira eta irudi-jartzaile lanetan Aitor Beramendi ariko da.

Koralaltsasuarrak, aldeazurre-

tik, laguntzaile guztien "laguntza bikaina" eskertu du. Kontzertua "erronka" dela aitortu dute abesbatzatik, "azken hilabete hauetan nahiko lanpeturik egon garela kontuan izanik, erreperitorioa osatzen duten abesti zail batzuk ikasten ahalegindu gara." Ahalegin horren emaitzaz gozatzeraz gonbidatu dituzte altsasuarrak.

Dantza jaialdia

Domekan, 17:00etan eta 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Irantzu Gonzalez Azpirozaren dantza eskolako 100 ikasle izanen dira Altsasuko dantza jaialdiko protagonistak. Adin guztietako dantzariak pasako dira eszenatik, era askotako dantzak eskainiz. Irakasleak emankizuna esaldi bakarrean laburbildu du: "norbera bere bidea egiteko jabe da."

Joan den urteko esperientziari segida eman eta Gonzalezek Dantza Campusa eskainiko du garilaren 10etik 17ra, 7 urtetik gorako dantzari zuzenduta. Gainera, garilean, hobekuntza ikastaroak izanen dira.

+ www.guaixe.eus

Olatzagutian pintzelak dantzan

Olatzagutiako pintura azkarrereko bederatzigarren edizioa jokatu zen domekan. Helduen mailan hiru izan ziren parte hartu zuten margolariak. Haietako bik besterik ez zituzten lanak aurkeztu eta epaimahaiak haiek baloratu ondoren lehensaria (500 euro) Lucio Fernandez de Migeli ematea erabaki zuen. Bigarren saria Felix Flamariquerendako izan zen (250 euro). 12 eta 15 urte bitarteko gazteen mailan, aurkeztutako margolanak saria eman zion Maren Arrizabalaga Otsoarrarteri (150 €-ko balea arte plastikoak, argazkilaritza edo kirol materialerako). Haurren mailan epaimahaiak hiru sari eman zituen: 1. Uxue Ondarra Lopez, 2. Aiala Sevilla San Gil eta 3. Edder Arrizabalaga Otsoarrarte. Arte



plastikoetako materiala eskuratu zuten sari gisa.

Lopezek, atzera ere, Alegriaren erretratu aukeratu du

Antonio Lopezek eta Juan Jose Akerreta margolariak *Figurazioaren Maisuak* pintura tailerra eskaini zuten Opusen unibertsitateko museoan joan den astean. 26 ikasleen artean Jokin Alegria, Kale, lakuntzarra zegoen. Bigarren aldia da tailerrean parte hartu duena eta bietan berak egindako lan bat tailerreko hiru margolan onenen artean aukeratu dute irakasleek. Aurten goan gizonezko baten erretratuagatik irabazi du Kalek aipamena.

Ikastaroan ikasleek tradizio figuratiboko generoak landu dituzte. Aurten emakumezko eta gizonezko baten erretratu bana egin dituzte eta baita bodegoia margotu ere. Pintatzea irakasleen eta ikasleen arteko



hizketaldietarako aitzakia da. Hala, kontzeptuak garatzen dituzte.



Arbizuko festek kartel iragarleak ditu

Urtero moduan festak iragartzeko kartel lehiaketa antolatu zuen Arbizuko Udalak. Nagusien mailan eta, beraz, festetako egitarauan argitaratuko dena Argiñe Berastegik egindako irudia da. Sua, garrak eta auzateko katilua irudikatzen duen lana da Berastegirena. Haurren mailako saria *Arbizu sutan* lanak eman dio Atikilt Arretxeri eta festa egitarauaren barruko orrietan ikusteko aukera izanen da.

bazterretik

Jose Luis Asensio

Presas fáciles

Miguelanxo Pradok (La Coruña, 1958) harritu egin nau, zorionez. Bere aurreko lanaz esan dezakedan bakarra, ez ninduelabatererunkitu. *Ardalen* komikiarekin Espainiako sari nazionala irabazi zuen, baina marrazkia ederra izan arren, istorioak hotz utzi ninduen. Ezinesan txarra denik, oso landua eta maixuki burutua baitago, baina irakurri ondoren, erraz ahaztu nuen. Oraingoan *Presas fáciles* komikiarekin bueltatu da eta liburua ikusi orduko, irakurtzeko beharra sentitu nuen. Azala ikusita, argi zegoen nor zen egilea, ez du bere marrazki estiloa bat ere aldatu. Ur-

margoz marrazturiko irudiak dirudite, kolorez hornituzerakoan lana erakargarriagoa eginez. Hala ere, barruko orrialdeak txuri beltzez argitaratuta daude oraingoan. Ez da ohizkoa bere liburuetan txuri beltza erabiltzea, baina bi arrazoi egon daitezke honela izateko, nire ustez. Lehenengoa, ekonomikoa, txuri beltzez argitaratzean, gastu gutxiagori aurre egin behar baitio argitaletxeak. Bigarrena, jorratzen duen gaia izan daiteke. Ez dakit originalak txuri beltzez egin zituena al kolorez, eta gero argitaratzean txuri beltzera pasa. Gaia aipatu dudala, oraingoan eleberri beltza bat idatzi du Miguelanxok, nahiko klasikoa gainera. Zen-

bait hilketa gertatu dira eta polizia protagonistek zer gertatu den argitu behar dute orrialdeak irakurtzen dituzun heinean. Behar bada eleberri hauek oso gustuko dituzalako izan da, baina oso erraz eta gogoz irakurri dut komikia. Misterioa gero eta handiagoa da istorioak aurrera egin ahala, azkenean guztiz argitu aurretik.

Hala ere, bigarren irakurketa bat egin daiteke kontakizunaren inguruan. Nahiz eta besterik gabe eleberri beltza bat bezala uler daitekeen, argi dago bere Galizian gertaturiko zenbait egoera soziopolitiko azpimarratu nahi dituela, ustez, ahaztu ez ditzagun. Bertan aurkituko ditugu zer ziren jakin gabe pre-

ferenteak erosi zituzten aiton eta amona xumeak, banku etxean lan egiten duten pertsona krudel, berekoi eta diruzaleak, politikari enesetara makurtzen diren poliziak, eta baita egun batetik bestera, dena galtzen duten herritarrek ere. Azkar eta erraz irakurtzen den lana bada ere, beste hausnarketa bat ere egiten du bertan. Gizarteak alde batera utzi ondoren eta dena galdu ondoren, jada ezer galdu ez dezakeen norbait, zer egiteko gai da mendekua hartzeko? Eta pertsona bat izan beharrean, etorkizunik ez duten ehundaka pertsona balira bat batean sistemari aurre egiten diotenak? Kritika bortitza egiten dio gure gizarteari. Azkenean, denok baitu-



gu erantzukizuna sortu dugun sistema honetan. Gure txanda iritsi arte ixilik egonda, ez dugu eta ezer aldatzerik lortuko. Eta Miguelanxo Pradok, Galizian ikaragarriko eragina izan zuten preferenteen kontua ez ahazteko bere ahalegina argitaratu du Norma Editorial argitaletxearen eskutik.

36ko drametarik sortutako ikuskizuna

Larunbatean, 22:30ean, Arbizuko Olatzeako belardian

Herrian duela 80 urte Francoren estatu kolpeak eta ondorengo errepresioak utzi zuena lantzen aritu da Oroimez Arbizu. Ikasturte hasieran Arbizuko Udalaren Kultura Batzordearen ekimenez sortu zen eta hainbat jarduera antolatu ditu. Ikasturteari "urrezko" despedida emateko "36ko gerrako gertaera latzen inguruan sortutako ikuskizuna" eskainiko du bihar, Oroimez Arbizuk.

Oroimez Arbizu taldeak azaldu dutenez, "emanaldiaren funtsa herritarren testigantza batzuk dira, garai hartan herrian izandako zenbait egoera kontatzen dutenak: fusilamentuak, ihesa, ezkutuan ibili



beharra, gerra, oinazea..." Bizipen horietan oinarrituta, herriko hamar idazlek testu bana sortu dute. Horien artean izen ezagunak daude: Castillo Suarez, Juanjo Olsagarre, Jon Arretxe, Mikel Reparaz edota Josema Leiza. Azken horrek, gainera, testu guztiak arbi-zueraz moldatu ditu.

Beste hamar arbizuarrek testu horiei ahotsa jarri diete Pello Reparaz estudioan: Julen Luis, Martin Larraza, Enara Insausti, Jesus Mari Mendinueta, Ramoni Berastegi, Mikel Berastegi, Nagore Arruti, Nerea Reparaz, Ander Garzia eta Juan Miguel Leiza. "Pello Reparazek berak prestatu ditu ensoi bant

Finantziarioa

Ikuskizuna sortzeko udalaren diru-laguntza izan du Oroimez Arbizu taldeak, baina aurrekontua estaltzeko Peio Lazkozentalla bat zozketatu da. Ikuskizunaren DVDa Sanjuanetan salgai izanen da.

daz eta giroko soinuaz jantzi ditu grabazioak. Guztiaren koordinatzaile Katrin Ginea izan da."

Hamar ahotz horiek pertsonaia batek gorpuztu edo dramatizatu ditu. Hamar istorio horien haria lotuko duen pertsonaia Zola Berastegik antzetzuko du. Olatzeako belardiko ikuskizunaren argiztatzeaz Arantza Flores urdiaindarra arduratu da, argi diseinatzailea bera.

Txastondarren biltzarra

Larunbatean, 23:00etan, Altsasuko Urtzi tabernan

Txaston taldeak musika emanaldia eskainiko du plazan aspaldiko partez. Hasierako eta gaur egungo musikariak ariko dira oholtzan. Egungo taldeak mexikar doinuez osatutako errepertorioa eskainiz abiaraziko du emanaldia. Haiek saioa despeditu ondoren, taldeko hasierako kideek lekukoa hartuko diete eta jendeak gogoan dituen 80 hamarkadako zenbait doinu eskainiko dituzte.

Egun berezia izanen da, batzuk musikarekin zuzeneko lotura duten bitartean, besteek utzia dutelako. Ilusioz hartu dute kontzertua. Duela hiru hilabete itxi zuten Urtziko emanaldia eta Txastonen bi formazioak astean bitan entseatzeko ari dira. Aterpea jarriko dute emanal-

dirako. Groutxo (taldearen logoa) berriro bueltan da.

Atzera begira

Batxilergo Balioaniztun Bateratuko (BUP gaztelaraz) ikasleen txango batean sortu zen Txaston taldea 1982an. Hasierako kideak honakoak ziren: Juan Velez (gitarra), Javier Del Rio (baxua), Roberto Cristobal (bateria), Mari Jose Gil (ahotsa), Iñaki Erbiti (teklatura) eta Patxi Artigas (gitarra). Udaletxe zaharrenean hasi ziren entseatzeko, gaur egun Udaltzaingoaren egoitza den horretan. Ilusioz eta gurasoen laguntzaz -horrela lortu zuten aurreneko ekipoa- hasi ziren. Taldeak bidea egin zuenean Arnanz beiragileak Gasteizko errepidean zuen lokal batean entseatzeko zuten.

Nafarroako Gobernuaren Viánako Printzea kultura zuzendari-



tzaren laguntzaz 1983 aldera herrialdean barna herrietako festak euren doinuekin -korridak, kalejirak eta kantu asko euskaraz- alaitzen hasi ziren. Berbena bakoitzeko 50.000 pezeta jasotzen zituzten orduan. Bestelako emanaldiak ere eskaini zituzten gobernuaren bidez: Erriberriko gazteluaren barruan edo Lekunberriko eta beste herrietako pilotalekuen mustutze ekitaldietan. Hego Euskal Herrian barna aritu zen Txaston. 1985ean soldaduskagatik urteko etenaldia egin zuten.

1986an Txastongo kideak profesionalki musikan aritu ziren. Musikaz bizitzeko ahalegin horrek ez zuen aurrera egin eta irailan kide batzuk taldea utzi zuten. Roberto Cristobal eta Patxi Artigas talderako kide berriak hartu zituzten. Gaur egun bikotearekin batera Longi Andueza (gitarra), Luis Fernando Andueza (baxua) eta Juanjo Mintegi (teklatura) ari dira. 29 urte daramate Arbizuko Izarra jatetxeko ezkontzetan jotzen.

Zelta-musika Uhartan

Gaur, 19:00etan, Uharteko Arakilgo plazan

Ibilbide handiko folk taldeak bisitatuko du gaur Uharteko Arakil: Iddwac. Joan den mendeko 70eko hamarkada akaberan sortu zen taldea Iruñean. Garai hartan zelta-musika boladan zen. Hainbat kide pasa ziren taldeetik eta 80ko hamarkada erdialdean, ehun bat kontzerturen ondoren, taldea desegin zen.

Bi hamarkadako geldialdiaren ondoren taldea berriro elkartu zen. Kantu sorta berria egin eta *Ahora volvemos* diskoa argitaratu zuten. Tradizio zeltako doinuekin batera bossa, rumba edo swinga uztartzen ditu taldeak.

Jazz arratsaldea

Gaur, 19:30ean, Altsasuko Haritza tabernan



Horixe da Alberto Arteta group-ek egiten digun proposamena *The Legacy* (Errabal Jazz) diskoa aurkezterakoan. Aurten argitaratutako lan hori 2014an kaleratutako *Bat* diskoak izandako arrakasta handiaren ondoren heldu da. Alberto Arteta saxofoi jolea Satxa Soriazu (Piano), Kike Arza (baxua), Luis Gimenez (gitarra) eta Juanma Urriza (bateria) lagunduta ariko da.

Metal doinuak gaztetxean

Larunbatean, 23:00etan, Altsasuko gaztetxean

Iruñerriko The Guilty Brigade hard punk taldeak Altsasan bere hirgarren diskoa aurkeztuko du, *Polvora & Whisky*. Laukoteak dienez azken diskoak taldearen berezko estiloa finkatu egiten du, soinu sendoa. Disko horretan guztiaren kontra egiten du taldeak, bat bera ere tente utzi gabe,

Storbais Ermuko boskotea da eta euren "hardkuelge" bezala definitzen dute euren musika, kaña estilo guzti-guztiak gustatzen zaizkie eta, baina normalean trashcore egiten dutela esaten diete. 1992tik ari da taldea.



Paperezko eta benetako eszenatokiak, bat

Arkatz liburudendak antolatuta altsasuar talde batek *La fábrica de sombras* liburua eneszenatokia bisitatu zuten maiatzaren 29an. Ibon Martin idazlearekin Iratiko oihanean eta Orbaizetako arma-olan barna literatur-bisita gidatua egin zuten. Literaturarekin zerikusia duten ekimenak sustatzen segituko du Elena Aldasorok. Arkatzek 30 urte bete ditu.

Non erabili

SORKUNDE HARATEGIA
ALTSASU
50 €ko erosketetan etxeko produktua doan

BERRIA EGUNKARIA
Harpidetza eginez gero %50eko deskontua.

IKER KIROLAK
ALTSASU
50 €tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketan erabilteko.

URGAIN ALBAITARITZA ZENTROA
ETXARRI ARANATZ
% 20ko deskontua kontsultan.

BASOMUTUR
ALTSASU
Menuan eta kartan %6ko deskontua.

BILTOKI TABERNA
ALTSASU
Eguneko menuan, kafea doan. Karta menuan, kopa doan.

GERTU SAKANA
ALTSASU
Sukalderako tresnerian 50€ko erosketa egitean %10eko deskontu-balea hurrengo erosketarako.

AINHOA ESTETIKA
IRURTZUN
Utsusuky packetan, % 30eko deskontua.

ASENSIO
ALTSASU
100 €tik gorako erosketetan hurrengo erosketarako 10 €ko balea (eskaintza ez metagarria).

IL PADRINO
ALTSASU
Eguneko menuan txupitona doan.

www.guaixe.eus-en zerranda osoa ikusgai

BAZKIDETZA 50€
948 564 275

G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 75%	euria: 70%	euria: 45%	euria: 15%	euria: 5%	euria: 10%	euria: 30%
Min: 9 Max: 16	Min: 9 Max: 14	Min: 9 Max: 15	Min: 8 Max: 18	Min: 9 Max: 23	Min: 12 Max: 25	Min: 13 Max: 22

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	28.5	9	8
Etxarri A.	27.5	7.2	12.3
Altsasu	27.5	8	19.1
Aralar	19.5	4.3	15.5
Urbasa	24.5	9	3

: ilargiaren aldia >>

ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
20	27	4	12

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Bazkide zozketa

EKAINENKO SARIAK:

1. SARIA:
Ekainberri: 2 sarrera.
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.
Aquarium: sarrera bat.
Lacturale: esneki lotea.
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.

2.,3. ETA 4. SARIA:
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.
Aquarium: sarrera bat.
Lacturale: esneki lotea.
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.

>> 11 galdera

Marijo Arza eta Leire Palacios

Dantzaleku Sakanako mendi korrikalarien nesken taldea

Testua: Larraitx Amadoz Lazkano



Jantzi gurekin

KOMUNIKAZIOA

Foru plaza, 23-1. Altsasu | 948 564 275 | 948 562 107

gk@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus

1. Noiz sortu zenuten taldea?
Duela hilabete inguru. Mendian korrika ibiltzen den Iruñeko talde bat ezagutzen genuen. Ezkaban eta Atarrabian beraiekin egon ginen, primeran pasa genuen, eta hori dela eta, horrelako zerbait Sakanan egitea bururatu zitzaigun. Gure paisaia, gure mendiak eta gure basoak zoragarriak dira eta gure ingurunea ezagutzeko aukera paregabea iruditu zitzaigun. Horregatik, ideia horri forma eman genion.

2. Dantzaleku Sakanaren laguntza izan zenuten, ezta?
Bai. Taldea sortzea erabaki genuenean, Peio Bergararengana joan ginen; honetan urte asko daramatza eta berarekin asko ikasi genezakeela iruditzen zitzaigun. Beraren laguntza dugu igandero eta eskerrak eman nahi dizkiogu horregatik. Orain arte ezagutzen ez genituen leku asko ikusteko aukera izan dugu, historia pixka bat ere ikasi dugu. Jende berria ezagutzeko aukera ere eman digu.

3. Zergatik ikusi zenuten talde bat sortzeko beharra?
Oso zaila delako bakarka ibiltzea. Korrika egitera ateratzen garenean bakoitza bere aldetik ibiltzen da eta polita iruditzen zitzaigun elkarren arteko zerbait sortzea. Neska askok ziur korrika egitera atera nahi dutela, baina batzuk agian ez dira ausartzen eta honen bidez uste genuen hori konpondu genezakeela. Talde bat izanda, eta konpromiso hori hartuta ere errazagoa da norberaren-

dako hau mantentzea.

4. Nortzuk osatzen duzue taldea?
Urtean zehar Sakanako Mankomunitateak antolatzen duen atletismo ikastaroan parte hartzen dugu. Ginesa Lopez, Marijo Arza, Leire Palacios eta Ione Pelaez, taldearen sortzaileak garelako ezazakegu. Ostiraletan egiten dugu ikastaroa, eta hortxe ezagutu ginen. Baina igandetan herriko jende gehiago elkartzen gara, lehen irteeran adibidez hamabi inguru atera ginen.

5. Ze abantaila ditu taldean ateratzeak?
Bakarrik joaterakoan jendeak beldurrak izaten ditu, bidea ongi ez baldin badakizu galtzeko arriskua dago, zer edo zer gertatzen bada... Beldur asko gaintzen laguntzen du taldean joateak. Konpromisoa hartzen duzu, igandero gelditzen garenez errazagoa da ohitura horrekin jarraitzea, eta hori guri oso garrantzitsua iruditzen zaigu. Asmoa honekin jarraitzea da, gogoz eta ilusio handiarekin gaude eta jende gehiago animatu nahi dugu, noski.

6. Igandero elkartzen zarete?
Igandero, Altsasuko plazan, goizeko 08:30ean. Oraingo hiru irteera egin ditugu, gure inguruetatik denak. Nahi duen guztiari luzatu nahi diogu gonbidapena.

7. Ze ibilbide egin dituzue?
Lehenengo ibilbidea Arania-Sarabe egin genuen. Bigarrena, Balankaleku eta egin dugun azkena, Sorozarreta-Orobe izan da. Orain arte ezagutzen ez genituen bide-

tatik ibilgira, eta honek beste ikuspegi berri bat ireki digu. Behin bidea jakinda, igandea ez den beste egun batean joateko aukera ematen digu. Asko disfrutatzen dugu, izugarria da gure ingurua.

8. Hurrengo hitzorduan nora?
Eguraldi ona ateratzen baldin bada igande honetan Txorroko puntara joango gara, eta, ziurrenik, datorren asteburuan Santa Marina johanen gara.

9. Mendi lasterketan parte hartzen duzue?
Aurreko asteburuan Lakuntza-Aralar mendi lasterketan Ginesa, Leire, Marta, Marijo, Bel, Haizea... aritu ginen. Oso esperientzia polita izan zen eta giroa bikaina.

10. Erritmo bizia al da zuena?
Gure asmoa azken finean korrika egitea da eta ongi pasatzea. Korrikan erritmo desberdinak daude eta mantoago doanari beti itxoi ten diogu, erritmo kolektibo bat ermaten saiatzen gara. Hala ere, bakoitzak bere erritmoa hartu dezake, noski. Mendiko aldapa handietan oinez joan beharra dago, ez pentsa beti korrika goazenik. Ez dugu inor beldurtu nahi, korrika ibiltzea gustatzen zaion edonondako irekita dago gure taldea. Lasai joaten gara paisaiaz gozatzeko.

11. Ze harrera izan du taldeak?
Gutxinaka jendea galdetzen ari da. Ilusio handia dugu, eta honekin aurrera jarraitzeko asmoa. Udanzailagoa da jendea elkartzea. Baina irailetik aurrera indartsu eta gogotsu jarraitzeko asmoa dugu.